SAKANAKO ASTEKARIA • 2014ko ilbeltzak 31, ostirala • 2. aldia • 449. zenbakia

GUAIXE.NET

Pablo Urtasunek Txilen hasiko du denboraldia

Kirolak >> 11

Odol-emaile egiteko deia egin zuten Etxarri Aranazko delegazioaren festan. 14 domina banatu zituzten igandean

Gizartea >> 6

Zerra-lanak baleontzirako

Bi sakandar San Juan baleontzia eraikitzeko enborrak zerratzen hasi dira Zerainen

Apirilean hasi nahi dituzte eraikuntza lanak. Ibarreko 200 haritz erabiliko dira itsasontzia egiteko

Ontzigintzan erabiltzeko basoak nola kudeatzen ziren erakutsiko duen ibilbidea eginen da Altsasun

>>5

Txirrindulariek ez dute A-1 autobiara atera beharko Arabara joateko edo bueltatzeko. Udal ordezkariak eta kontseilaria bidea bisitatzen. ERKUDEN RUIZ BARROSO

Lasaitasunerako bidea Ziordian

>>3

Eskubideen aldeko Ostegun Sozialak

>>7

Irurtzungo hilerriak bi ate izanen ditu

>>9

Kataluniako galdeketak ezagutzeko aukera

>>7

Altsasu, Platea programan onartua

>>14

Haurra izateak saria du Ergoienan

>>7

Mendizale altsasuarren egutegiaren aurkezpena

>>13

Iruñeko Ganbera Abesbatza Lakuntzan

>>15

Behin behineko gimnasioa Biurdanako ikasleendako

>>5

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho·Isolatzaileak • Alumninioa·P.V.C·Mistoak

GURE RENOVE PLANA

%20ra arteko deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com

Beñat Gomez
7 urte, ilbeltzaren 27an. ZORIONAK gure mutil koxkorrari!

Naroa
ZORIONAK!! Muxu asko etxekoen partez.

Pedro Igoa
ZORIONAK aittalla!! Milla muxu eta milla zorion zure 81 urtebetetzean. Sarai, Nora, Xabier, Anne eta Iratiren partetik, ondo pasatuko dugu eguna.

Irati Ayerdi Perurena
Zorionak Irati! Gure sukaldari trebeak dagoeneko 9 urte! Larunbateko bazkaria zure kontu... Lasai, laguntzaile asko izanen dituzu eta! Ongi pasa, besarkada handi handi bat. Etxekoak.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 3,50€

Bikoitza: 7€

ilbeltzak-otsailak 31-6

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Gure musika. Otsailaren 1ean, larunbatean, 19:00etan Lakuntzako elizan. **Agrupación Coral de Cámara de Pamplona.**

The Last Strenght+The Friday´s Crew+Cold Rebege. Otsailaren 1ean, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

Antzerkia

Ramplona2016. Sobrevivir o vivir del sobre. Ilbeltzaren 31n, ostiralean, 21:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Iluna producciones.**

Un cuento de piratas. Otsailaren 2an, igandean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Iluna producciones.**

Ipuin kontalaria

Antzinako kondairak. Ilbeltzaren 31n, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Eñaut Gorbea.**

Proiekzioa

2013ko mendi irteerak. Otsailaren 1ean, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Zinema

Thérèse D. Ilbeltzaren 31n, ostiralean, 21:45ean eta otsailaren 2an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

La vida secreta de Walter Mitty. Ilbeltzaren 31n, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 2an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Futbolin. Otsailaren 2an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteera

Kostalera-Codes. Otsailaren 2an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Txirrindula irteerak

Lezamen. Otsailaren 2an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik, 9:20ean Urbasako kanpinetik. 66 km. **Burundako mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Oleos. Otsailaren 14ra Urdiaingo Kaluxa tabernan. **Patricia Paats.**

Orainetik iragana eta geroa eraikitzen. Otsailaren 16ra arte Altsasuko Iortia kultur gunean. **Helena Santano Cid.**

Hitzaldiak

Sakanako Sortzen eta eskola publikoen festa. Ilbeltzaren 31n, ostiralean, 15:30ean Altsasuko Zelandi eskola publikoan. **Hizlariak: Iker Moreno, Sortzeneko koordinatzailea eta Genaro Paniagua, Zelandiko irakaslea.**

Herri galdeketak Katalunian. Otsailaren 1ean, larunbatean, 11:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlariak: Anna Arqué I Solsona eta Josep Manel Ximenis.**

Tailerrak

Adimen emozionalaren bidezko heziketa. Ilbeltzaren 31n, ostiralean, 9:30ean Olatzagutiko Akelarre ludotekan.

Ile-apaindegia. Otsailaren 1ean eta 2an, larunbatean eta domekan, arratsaldez Altsasuko Intxotiapunta gazte gunean.

Zumba. Otsailaren 5ean, asteazkenean, 18:00etan Altsasuko Intxotiapunta gazte gunean. **Apirilaren 16ra arte, asteazkenero. 15 euro.**

Bestelakoak

Euskal Herriko VI. mus txapelketa. Otsailaren 1ean, larunbatean, 16:00etan Etxarri Aranazko Karrikestu elkartean.

Arakilgo Udalaren informazio saioa. Otsailaren 4an, asteartean, 19:00etan Zuhatzuko kontzeju-etxean.

Eskubide ekonomikoak. Otsailaren 6an, ostegunean, 19:00etan, Irurtzungo kultur etxean. Euskal Herriko eskubide sozialen karta.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 31n, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 2an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Otsailaren 3an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM beleixe online
www.guaixe.net

Pizgu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA
ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak, Aurkene Ormazabal, Sasoia, FMLNren aldeko ekitaldia, Sakana gorria dinamika...

Esataria: Alfredo

ezkaatza >>

» Altsasu

Sasoiak argindarraren garestitzea salatu du

Altsasuko azokan, herenegun, elkarretaratzea egin zuten Sasoia, Nafarroako jubilatuen elkarteko 20 bat kidek. Batzuk *argia gure iluntasunean, argiaren igoerari ez!* leloa zuen pankarta zabaldu zuten bitartean, besteek eskuorriak banatu zituzten. Argindarraren ordain-agiria murrizteko borroka eginen dutela adierazi zuten Sasoiako kideek.

Elkarteko kide Luis Igeltzek azaldu zigunez, "argindarraren igoerak jubilatuen eros ahalmenean eragin zuzena du, haiek are gehiago pobretuz". Gogora ekarri zuen 2007tik %77 igo dela argindarra, apirilean, berriz %2,3 igoko dela eta, bestalde, pentsioak aurten %0,25 besterik ez direla igo. Igeltzek gaineratu zuen butanoan %20eko igoera aurreikusi dutela.

Ordaindu ezinean

"Ongi ez dagoen, gaixo dauden adineko jende asko dago etxean berogailua jarri ezinik, ezin duelako ordaindu". Igeltzek nabarmendu zuen egoera hori askoz gehiago larritzen dela familiako diru sarrera bakarra jubilatuaren pentsioa denean. Salaketa bera Irurtzungo eta Etxarri Aranazko azoketan zabalduko dute otsailean.

Sasoiako kideek argindarraren garestitzea ozen salatu zuten Altsasun.

» Ziordia

Arabara autobiara atera gabe

Ostiralean Nafarroa eta Araba lotzen dituen errepidea mustu zuten. Autobiaren hegoaldean dago bidea. Beste alternatiba bat dago: Ziordiko Udala eta Sustapen Departamentua iparraldeko bidea nola konpondu ikertzen ari dira.

A-1 autobia bihurtu zenean, ez zen Araba eta Nafarroa arteko zerbitzu errepiderik egin. Hortaz, bi herrialdeen arteko bide bakarra autobiara ateratzea zen. Bai bidaia motzak egiteko, baita txirrindulariendako eta nekazaritza ibilgailuendako ere. Hainbat eskakizunen ondoren, Nafarroako Gobernuak Ziordiko 500 metroko bidea konpondu du. "Orain txirrindulariek erosotasunez eta segurtasunez Irurtzundik Gasteizera joateko aukera dute, hau baitzen konpondu gabe zegoen gune bakarra", adierazi zuen ostiralean Luis Zarraluki Nafarroako sustapen kontseilariak.

Aspaldiko arazoa

90eko hamarkadan A-1 errepidea bikoiztu eta autobia bihurtu zenean ez zen zerbitzu errepiderik egin. Nafarroatik Arabara joateko zerbitzu errepiderik ez zegoenez, txirrindulariak eta nekazaritza-ibilgailuak batez ere, autobiara atera behar ziren. 2011ko udan Nafarroako eta Arabako zikloturistek Ziordia parean autobiara atera behar zirela salatu zuten, haien bizitza eta beste gidariena arriskuan jarriz.

Altsasuko Trafikoko Guardia Zibilak ere horren berri eman zuen txosten batean. Hortaz, Nafarroako Gobernuari autobia parean dagoen bidea konpontzeko eskatu zioten. Ostiralean mustu zuten autobiaren hegoaldean dagoen errepidea. Ferroser-Lakita enpresa elkarteak egin du obra eta 34.282 euroko kostua izan du. Bidea garbitu dute eta 5 zentimetroko asfalto geruza zabaldu dute.

Soka luzea

Ziordiarrek urteak daramate Arabarako lotura eskatzen. Legegintzaldi honetan PSNko eta UPNko sustapen kontseilariei jakinarazi zieten gabezia. Nafarroako Parlamentuan Geroa Baik mozioa aurkeztu zuen eta onartu egin zen. Konponbide "ikaragarria" dela adierazi zuen Jesus Arrese Ziordiko alkateak. "Orain mantendu baino ez dugu egin behar".

Ziordiko udal ordezkariak Luis Zarraluki kontseilariearekin. ERKUDEN RUIZ

Iparraldeko bidea

Txirrindulariek eta nekazaritza garraioek modu seguruan Arabara joateko aukera dute orain. "Bide hau erabilpen anitzekoa da. Agian txirrindulariak direla eta kontuz ibiltzeko seinaleak jarri beharko dira", adierazi zuen Ignacio Nagore Sustapen Departamentuko herri lanen zuzendari nagusiak. Dena dela, Ziorditik Eginora joateko beste alternatiba bat dago, autobiaren iparraldean. "Arazoa konpontzeko bi aukera zeuden, eta hau -hegoaldeko bidea- errazena zen, eta dagoeneko egina dago. Beste bide bat ere badago, egia da. Baina bide horrek zulo asko ditu eta oso estua da. Beraz, nondik handitu begiratu behar dugu eta desjabetzeak egin beharko dira", azaldu zuen Ignacio Nagorek. Jesus Arrese Ziordiko alkateak dio Sustapen Departamentuak bitarteko teknikoak jarriko dituela gaur egungo partzela-bidea errepide bihurtzeko eman behar diren urratsak ikertzeko. Datuak eta kostuak zeintzuk izanen diren dakitenean errepidea konponduko dutela esan zuen.

» Aizkorbe / Irurtzun

Plazaolako Iruña arteko tarteari babesa

Lurralde Antolaketa Batzordeak asteartean egindako bileran Plazaola bide berdeko Irurtzun eta Iruña arteko tarteari babesa berretsi zion. Jakinarazpena Nafarroako Gobernuari bidaliko dio hark onartu dezan. Plazaola turismo partzuergoak sustatutako Udalez Gaindiko Proiektu baten bidez garai batean trenbidea zena txirrindulendako ibilbide bihurtuko da. Erabiltzaileek Andoainera arteko joan etorriak egiteko aukera izanen dute. Gainera, Europako eurobelo sarearekin bat eginen du.

Sakana zeharkatu

Mank-ek ibarra zeharkatzen duen oinezkoendako eta txirrindulariendako bidea egiteko asmoa aspalditik du. 2010eko aurrekontuetan jasoa zuen proposamena, baina Nafarroako Gobernuaren finantziazioak huts egin zuen.

Plazaolako ibilbidea Irurtzunen.

Non erabili

LIBURUNDA
ALTSASU
%5eko deskontua papertegian eta irakurketarako liburuetan.

GOIKO LOREDENDA
ALTSASU
30 €tik gorako erosketetan %10eko deskontua (baratza eta garaiko loreetan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).

MARI JOSE ILEAPAINDEGIA
ARBIZU
Manikura 18€.

FRUITIS FRUTA DENDA
IRURTZUN
10 €ko gastuarekin 2 boleto zozketarako.

EROSKI BIDAIAK
ALTSASU
%5eko beherapena, hiri hoteletako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

AMETSA LIBURUDENDA
ETXARRI ARANATZ
%5eko deskontua jostailu eta puzzleetan.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA
URDIAIN
50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA
ALTSASU
60 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

LASTAI GASOLINDEGIA
ALTSASU
0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO
ALTSASU
Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

astekoa

Eduardo Galan

Sinadura bilketa

Ziurrenik eta egiten bada, askok, "*paseíllo*"a ez dugu zuzen-zuzenean ikusiko. Normalena izango da gehienoi, gertakizun historiko mundial horrek, urtero errepikatzen diren otsailaren hasierako ospakizunetan murgildurik harrapatzea. Batzuei, kinto lagunekin Santa Agedako jaietako mahaien inguruan jan eta edanez, gure loditze edo ile zuritze prozesuaz barre eginez gure adinekoekin. Besteei, ordea, gure lurraldeko edozein sagardotegiren batean non, txotxaren erituala jarraituz, kupeleko sagardo guztia hustearen saiakeran, txuletak bata bestearen atzean sabelera sartzen ditugun.

Diotenez eta segurtasun arazoak argudiatuz, ez dakite oraindik, otsailaren 8an, Cristina Federica Victoria Antonia de la Santísima Trinidad de Borbón y Grecia, Espainako Infanta eta Palma de Mallorcako Dukesa, "Noos" kasuan inputatua, Iñaki Urdangarinen emaztea hain zuzen ere, aparkalekutik, Palma de Mallorcako Instrukzioko 3. zenbakiko Epaitegira ailegatzeko, José Castro epaileak deklarazioa har diezaion, "paseíllo" delakoa egingo duen ala ez.

Hori izango da, auzitegietan, Infantari gehienez gertatuko zaiona. Munduko telebista guztietako ikusleen aurrean lotsa pasatzea, zeren lasai asko egon daitezela monarkikoak, delitu guztiez absolbitua izango da. Horretaz ziur egon.

Beraz, auzi honi dagokionez, herritar aldarrien indar guztiak norabide horretan joan beharko lukete, zeinean Infantak, gutxienez, mundu guztiaren aurrean lotsaren "paseilloa" egin beharko lukeen. Nork antolatuko du sinadura bilketa? Konta dezala nirearekin.

Kexak, iritziak, iradokizunak: dudugalan@hotmail.com

barrutik kanpora

Urtearen hasieran

Urtarrilaren 11n Bilbon egin zen mobilizazio erraldoiari begira hasi dugu urtea. Izan ere, badakigu, urteroko zita honek aurrera egiteko indarra ematen digula. Oztopo guztien gainetik, argi dugu, bertan bildutako jendetzak euskal preso politikoen eskubideen defentsaren aldarria egin zuela.

2013a amaitu da, baina urte honetan ere ikusi dugu gure senide eta lagunen egoera ez dela inondik inora aldatu, hobetu. Eta 197/2006 doktrinaren indargabetzearen ostean, ikusi ahal izan dugu espetxeetan euren eskubideak urratuak izaten diren arren, zegokien zigorra baino luzeagoa beteta ere espetxetik atera eta euren eskubideak urratzen jarraitu dutela eta are gehiago, eraso hauek senide eta lagunok ere pairatu ditugula. Gure eskubideak ere guztiz zapalduz.

Frantziako estatuan, bizi osorako espetxe zigorrari dagokionez, ez da urte kopuru maximorik eta biziarteko zigorrera kondenatua den preso batek baldintzapeko askatasuna eska dezake 15 urteren buruan. Baina, erabakia kondenen aplikapenen epaiaren esku dago, eta honek etengabe uka dezake. Honetaz gain, Poitiers-eko espetxean eskubide urraketa larriak ematen dira emakumeen moduluan, egunez zein gauez bi orduro zenbaketa egiten diete, gauez argia piztu, etengabeko soinuak... Egoera honen aurrean protesta egiteagatik bi euskal preso isolamendura eraman zituzten abenduan.

Bestalde, Juan Ramon Karasatorreri dagokionez, behin betiko estraditatua izan da estatu frantsesean bere zigorra bete ondoren, gaur egun Soto del Realen dago. Baina, berri pozgarriak ere baditugu, Poxtiña eta Bautista gure artean aske daude! Ongi etorri bikote!

Etxerat

Etxerat

objektibo tik

Plastikondoa loretan: Landare espezie berri bat sortzen ikusi dugu Irañeta aldetik pasa garen aldi bakoitzean. Pixkanaka-pixkanaka landare berriak bere fruitu txuriak ematen ikusi dugu, egunetik egunera. Fruitu txuriak, edateko jogurten itxura dutenak eta, antza, plastikozkoak diruditenak.

Makila hartu eta kantatzera: Urte guztian barna makilekin kontuz ibiltzeko gomendioa eman ondoren, asteartean, Santa Ageda bezperan, etxeko txikienak eta helduenak ikastetxera edo kalera makila dutela joango dira, makilaren doinuei jarraiki Santa Ageda martiriaren koplak kantatzera: zorion etxe hontako denoi...

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

gora/behera

Lasaitasuna
Ziordia eta Araba artean konpondutako bideak txirrindulariei lasaitu ederra ekarri die.

Erreparoak
Odola emateko ez da beharrezkoa orratza nola sartzen duten begiratzea.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Garazi Barandalla Kanpos
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saileurordetza

SAKANA

Baleontzirako egurra Zerainen zerratzen

Zeraingo Zerralan kooperatiban zerratuko dituzte XVI. mendeko San Joan baleontzia eraikitzeko erabiliko diren enborrak. Sakanan pasa den urtean moztu eta Zeraingo zerrategira eraman ziren 200 haritz enbor dira erabiliko direnak XVI. mendeko San Joan baleontziaren errepika egiteko.

Zerratze lanak hasiak dira eta hainbat aste beharko dira lanak despeditzeko. Zerra-lanetarako bi langile sakandar kontratatu dituzte. Bi motako enborrekin lan egin beharko dute. Batzuk makurrak dira eta itsasontziaren egitura egiteko balio dute. Besteak, tantaiak edo zuzenak, egitura hori kanpotik ixteko izanen dira. Enborrak moztu ahala Pasaia Ondartxo olara eramanen dituzte, Albaolaren egoitzara, baleontzia han eraikiko baitute. Apirilean hasi nahi dute egiteko horretan.

Enbaxada mugikorra

Donostia 2016 Europar Kultur Hiriburutzako proiektuaren egitasmo nagusia da XVI. mendeko San Joan baleontziaren eraikuntza. Enbaxada mugikorra izanen da. Itsasontziaren eraikuntza prozesuari balioa emateko elkarlana eta harreman sare berriak sortu nahi izan dituzte.

Albaolako Xabier Agotek adierazi duenez, prozesuak "Euskal Herri itsastarra osatzen zuten lanbide, industria, hornitzaile eta kolaboratzaile sarea dinamizatu nahi du, kostaldetik haratago hedatzen zen industria eta lanbide sarea ikustaraziz".

Sakanako ordezkariak proiektuan bat egin duten beste erakundeetakoekin batera atzo Zerainen. UTZITAKOA

Baleontzia

22 metro luze, 7,5 metro zabal eta 200 tonako pisua izanen du baleontziak. San Joan baleontzia 1.563an eraiki zuten Pasaian eta bi urte geroago hondoratu zen, Kanadako Red Bayn. Hantxe jarraitzen du gaur egun. Unescoren munduko urpeko ondarearen zigiluan agertzen da baleontzia.

Itsasorako zuraren bidea

Euskal ontzigintzaren urrezko aroa azaltzeko barruko aldetik kostaraino doan "bidea" osatu nahi dute proiektuaren sustatzaileek. Bidea Sakanan hasiko da, ontzigintzan erabiltzeko basoak nola kudeatzen ziren erakutsiko duen ibilbide batekin. Aurten eginen dute. Altsasun egonen da, Dantzalekura iritsi aurretik dagoen aldapan, ezkerretako bide batetik abiatuko litzateke eta Usolarrainen bukatuko litzateke. Sakanako hariztietan azalpenak jaso ondoren, Zerain zerrategia, Beasain edo beste herrietako oletatik pasaz, Ondartxo ontziolan bukatuko du interpretazio ibilbideak. Herrietako museo eta bestelako baliabide turistikoak hartuko lituzkeen sarea osatzeko aukera legoke.

>> Arakil / Irurtzun

Biurdanan behin behineko gimnasioa

Batzordearendako ez da konponbidea. Anaitasuna kirol elkartearen egoitzan soin heziketa egiten ari dira. Ikasturte berrian Batxilergoko ikasleak aldameneko Donibane institutuan ariko dira

Iruñea Iparraldeko Institutuko Batzordea (Sanduzelai, Patxi Larrainzar, Amaiur, Auzalar, Lekunberri eta Atakondoa guraso elkarteak) bi urte luze darama ikastetxe horretan dagoen espazio falta salatzen. Batzordetik eraikinaren gaitasunaren gainetik ikasle kopuru handia jasotzen duela salatu dute behin eta berriz. Konponbidea ere proposatu dute: Iruñea iparraldean D ereduko institutu berri bat egitea.

Ikasturte honetan 30 gimnasia klase daude ikastetxean eta haietatik 19tan bi klasek bat egiten dute. Eta hainbat talde ekitaldi aretoan edo aterperik ez duen patioan aritu dira soin heziketa egiten. Bestalde, ikastetxea 24 ikastalde hartzeko prest dago eta aspaldi muga hori betea du. Hurrengo urteetako matrikulazio aurreikuspenak argi uzten dute ikastetxea txiki gelditu dela. Horregatik, Hezkuntza Departamentuak erabaki du heldu den ikasturtean Batxilergoko ikasleak ondoko Donibane ikastetxera lekualdatzea.

Batzordeko kideek Hezkuntza Departamentuak hartutako neurriak adabaki hutsa direla salatu dute. "Gure hezkuntza ereduarekiko interes falta erakusten du. Orain arteko jokabideak eta kudeaketak hezkuntza publikoa ito larrian uzten du, ez baitute ahaztea nahi". Gaineratu dutenez, hartutako neurriak ez dira konponbidea. "Profesionalen programazioaren hezkuntza kalitatea murrizten du, espazio eta ordutegien koordinazioan, ateak zabaldu-itxieran, errepideak gurutzatzean denbora gehiago eman behar dute".

Eskaera Irurtzunen

Atakondoa eskola publikoko hezkuntza komunitateak eta Irurtzungo Udalak urteak daramatzate ikastetxe berri bat eskatzen Irurtzunen. Gaur egun 4 gela moduluetan ematen ari dira. Ikasle kopuruaren hazkundeari erantzuteko eskatzen dute ikastetxe berria. Baina baita DBHko ikasketa guztiak Irurtzunen egin ahal izateko. Hezkuntza Departamentuak ezezkoa eman die behin eta berriz. Txiki Iriartek esan digunez, "departamentuak ez du ez azpiegituran eta irakaslerian inbertitu nahi eta horregatik ezezkoa ematen digu".

» Etxarri Aranatz

Odolemaile egiteko deia

Urteko festan 14 odolemaileri egin zitzaien aitortza

Igandean ospatu zuen Nafarroako Odol-emaileen Elkarteko (Adona) Etxarriko ordezkaritzak bere urteko festa. Iturri eder tabernako topaketan elkartu zirenen aurrean Adonako kide Pedro Eskiroz medikuak hitza hartu zuen odolemaileen meritua nabarmentzeko: "odola ematea pertsonen arteko elkartasun eta komunikazio ekintza bat da". Odola emanez bizitzak salbatzen direla nabarmendu zuen. Eta gogora ekarri zuen populazioaren %80ak inoiz odoletik eratorritako produkturen bat beharko duela.

Eskirozek etxarriarrak animatu zituen "odol ematea herrian gizarte-ohitura bihurtzeko" lan egin dezaten. Horregatik, euren inguruan dituzten pertsonei odolemaile egiteko eskatzea proposatu zuen.

Datuak

Adonak Etxarrin 443 bazkide ditu. Haietatik pasa den urtean 137k eman zuten odola. Haietatik 173 herrira etorritako autobusean egin ziren eta gainontzeko 55ak beste herri batean emandakoak ziren. Guztira 228, aurreko urtean baino 134 gutxiago, autobusa ere egun bat gutxiago etorri zelako. Joan den urtean 5 odolemaile berri egin ziren.

14 domina

Ekitaldian odola 50 aldiz emateagatik 3 domina eman zizkieten Jose Ramon Araña Petriatiri, Jose Luis Asensio Igoari eta Juan Mari Garciandia Markotegiri. Zilarrezko domina odola 25 alditan eman dutenei banatu zieten: Igon Anduaga Goñi, Remedios Karasatorre Artieda, Ana Maria Claver Vital, Jose Ignacio Ganuza Belaskoain, Iosu Garmendia Garcia, Mª Carmen Lopez Galarza, Isidro Luis Tabar, Soledad Olkoz Alvarez, Cesar Razkin Igoa, Jose Antonio Senar Elso eta Jose Andres Ulaiar Maiza.

Nola egin odol-emaile

Autohemoteka edo odola ateratzeko autobusa herrira etortzen denean hara joatea besterik ez da egin behar. Bestela, Iruñean dagoen Nafarroako Odol Bankura joan daiteke. Nafarroako Ospitalearen ondoan dago, sarrera ondoan. Ezkerretara dagoen eraikina da.

» Uharte Arakil

Ikur arrotzen inposizioaren salaketa

Sakanako beste udal batzuei bezala, auzitegiek Uhartekoa ere udaletxean Espainiako bandera jartzera behartu dute. "Inposaketa salatzeko eta ikurriña jartzeko debekuaren kontra egiteko" Uharten Guk Gureak taldeak herritarrak erantzutera deitu zituen. Igande eguerdian ikurrinaren irudia osatuz mosaikoa egin zuten makina bat uhartearrek.

Ikurren gainean herrian erabaki nahi zutela aldarrikatu zuten. Ekitaldian gogora ekarri zutenez, "azken 30 urtetan ez da banderarik egon udaletxean. UPN eta PPren gobernuek bandera arrotza inposatu digute eta herriko jendearen erabakitzeko eskubidea urratu digute".

Udazkenean herritar talde baten ekimenez sortu zen Uharte Arakilen Guk Gureak elkarte berria. Elkarte berriak hiru helburu izanen ditu: memoria historikoa berreskuratzea, euskal kultura bultzatzea eta euskal nortasuna babestea. Lastailean Euskal Astea antolatu zuten, bi urtean behin antolatuko dutena, eta bestelako ekimenak eginen dituztela iragarri zuten.

Uhartearrek bertako ikurren alde egin zuten, ikurrina osatuz. UTZITAKOA

» Irañeta

Dohatsuaren aldeko meza

Lastailaren 13an Lorenzo Lizasoain Lizaso irintarra (Jorge Luis anaia marista) dohatsu izendatu zuten. Horregatik, esker emate meza izan zen igande eguerdian eta bertan izan zen Francisco Perez Gonzalez artzapezpikua. Elizkizunean aldamenean izan zituen herriko apaiza, Alejandro Lizarraga, eta Jose Migel Lakuntza domingotar irintarra.

Lizarragak irintar bat dohatsu izendatzea "herriarendako gertaera historikoa" dela adierazi zuen eta ekitaldi xume batekin ospatu nahi izan zuten. Horregatik, Lizarragak herriko eliz gizonak gonbidatu zituen, baina bik ezin izan zuten mezan parte hartu. Justo Lakuntza, aita zuria, Madrilen zegoen, eta dohatsuaren iloba den Javier Irurtia Lizasoainek misiotik bidalitako gutuna irakurri zuten haren senideek. Mezaren ondoren otamena izan zen eta artzapezpikua irintarrekin ordu biak pasa arte hizketan egon zen.

Artzapezpikua meza ematen Lizarraga eta Lakuntza lagun zituela. UTZITAKOA

Fusilatua

Lorenzo Lizasoain Lizaso Irañetan jaio zen 1886ko irailaren 4an. 1936ko agorrilaren 24an fusilatu zuten Toledon.

» Altsasu

Claudio Etxeberria Zabalo hil da

Astelehenean Claudio Etxeberria Zabalo Argentinako Ramallo hirian hil zen. Ramalloko 2012ko Immigrantearen Eguneko ekitaldien barruan Hiriko Hiritar Ospetsuaren izendapena jaso zuen. Orduan Ariel Santalla intendentearen eskutik jaso zuen aipamena Etxeberriak. Altsasuarrak Pilar Guridi Uribe emaztea eta Javier semea izan zituen aldamenean.

Gerra Zibilean Gudaria izan zen. Santoñako errendizioan atxilotu eta espetxean 4 urte egon zen. Soldadu Langileen Batailoira bidali zuten. Soldadutza artillerian egin ondoren harrobietan lan egitera bidali zuten. 1949an Argentinara joan zen.

» Arakil / Irurtzun

Euskaraz ez dakiten gurasoendako tailerra

Hizkuntza jakin gabe seme-alabei etxeko lanak egiten laguntzeko aholkuak emanen ditu

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ikasleak dituzten gurasoei zuzendutako prestakuntza saioa antolatu du Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Guraso horiek kezka handia izaten dute eskolako lanetan, ikas prozesuan, ezin dietelako seme-alabei lagundu. Otsailaren 7rako antolatutako hitzaldian, Iñaki Eizmendi hezitzailea kezka horiei buelta ematen saiatuko da, 15:30etik aurrera Atakondoa eskola publikoan.

» Altsasu

Sakanako herri eskolen festa aurkeztuko dute gaur

Zelandi eskolak antolatuko du aurten ospakizuna. 15:30ean eginen da aurkezpena ikastetxean

Arbizuri hartuko dio aurten lekukoa Altsasuko Zelandi eskolak Sakanako herri eskolen festaren antolaketan. Ibarrean Sortzen elkarteko kide diren guraso elkarteek antolatzen dute ospakizuna. Maiatzaren 10eko ospakizuna aurkezteko eta, bide batez, Sortzen zer den eta elkarteak Sakanan izan duen ibilbidea ezagutarazteko hitzaldia antolatu dute gaurko.

Iker Morenok, Sortzeneko koordinatzaileak, eta Genaro Paniaguak, Zelandiko irakasleak, hartuko dute hitza hori guztia azaltzeko. Gaur, 15:30ean, Zelandi eskola publikoko PSIko gelan.

»

Isun politikoak salatu ditu Ospak

Azken hiru urteetan hainbat altsasuarrek 21.000 euroko balioko isunak jaso dituzte. Ospa mugimenduak "isun politikotzat" jo ditu segurtasun indarretako kideek jarritakoak. Haiek alde egitearekin batera, adierazpen askatasunaren aldeko aldarria egin du Ospa mugimenduak.

SAKANA

Euskal Herriko Mus Txapelketan aurrera

Hainbat herrietan jokatu dira dagoeneko Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketak. Hala, Uharte Arakilen Javiertxo Martirenak eta Albertok lortu zuten Nafarroako kanporaketarako txartela. Arbizun, berriz, 10 bikote lehiatu ziren eta herrialdeko finalerako txartela Eneko Lazkotz eta Manu Leitza eta Salvador Razkin eta Jose Luis Flores bikoteek eskuratu zuten. Bestalde, Etxarri Aranatzen, larunbatean, 16:00etan jokatuko da kanporaketa, Karrikestu elkartean.

Ergoiena

Haurra izateak saria du Ergoienan

Haur jaioberriendako laguntzak bere horretan mantendu ditu Ergoienako Udalak. 2013an familia bat izan zen onuraduna

Ergoienako Udalak jaiotzak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza du indarrean. Ordenantza horren arabera, Ergoienan jaiotako haurren gurasoei diru-laguntza ematen die Udalak, gurasoek Udalean eskaera eginez gero: 400 euro aurreneko umea izatean, 700 bigarrena denean eta 1.000 hirugarrenaren kasuan.

Haurrak Dorraoko jolas-parkean.

Bete beharreko baldintzak

Diru-laguntza jasotzeko, ondoko baldintzak bete behar dira: lehena, Ergoienan erroldatuta egotea; bigarrena, Ergoienan bizitzea eta, azkena, udalarekin eta kontzejuarekin inolako zorrik ez izatea.

Kattukako matrikulan laguntza

Ordenantza hori bere horretan mantendu, eta horretaz aparte, Ergoienako Udalak laguntza gehiago jasotzeko beste aukera bat gaineratu zuen aurreko urtean, jaiotzak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzan: Kattuka haur eskolako matrikulan laguntzea. Izan ere, Lakuntzako eta Arbizuko udalek sustatu dute Kattuka eta bi herrietako haurrez aparte inguruetako herriko neska-mutikoak hartzen dituzte. Bi udal sustatzaileak ez diren gainontzeko herrietako haurren gurasoek gehiago ordaindu behar dute matrikulagatik. Horrela, Ergoienako Udalak, ordenantzaren aldaketarekin, gurasoei Kattuka haur eskolako gastuan laguntzea onartu zuen, herri sustatzaileetatik besteenganako diferentzia hori bere gain hartuz. Beti ere eskariak ordenantzarako zehaztutako kopurua gainditzen ez badu. Kasu horretan, laguntza eskatzaile guztien artean banatuko litzateke.

Aurten ere **diru-laguntza** egonen da

Ergoienako Udaletik adierazi digutenez, Udalak aurten 4.000 euroko diru poltsa du jaiotzak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzarako. Joan zen urtean udalak diru-laguntza bakarra eman zion Lizarragako bikote bati. Haurren esperoan dauden ergoendarrek jakin dezatela diru-laguntza hori eskura dutela.

SAKANA

Ostegun Sozialetan parte hartzeko deia egin dute

Euskal Herriko eskubide sozialen karta egiteko antolatu dute dinamika

Otsailaren 6an hasita, hurrengo bost asteetako ostegunetan Ostegun Sozialak dinamika indarrean izanen da Sakanan. Euskal Herriko Mugimendu Sozial eta Sindikalen lehen Asanbladak sustatu du Euskal Herriko eskubide sozialen kartaren erredakzioa. Eta horren harira, eragileek Sakanan Ostegun Sozialak dinamika sustatu dute, ekarpenak jaso eta "Euskal Herriak behar duen alternatiba sozial eta ekonomikoa garatzeko".

Gutun horretan langile-klasearen eta herritar-sektore zabalen (gazte, adineko, emakume, etorkin, maila funtzional ezberdineko pertsonak …) helburu eta aldarrikapen sentituenak jasoko dira. Horretarako azpitik gorako eredu parte-hartzailea sustatu dute. Gutunaren sustatzaileek adierazi dutenez, "Gaurko testuinguruan, non eskubide sozialen eta bestelako eskubideen eraispena jasaten ari garen, ezin gara etxean geratu".

Horregatik, Sakanako gizarte mugimendua eta herritar guztiak jardunaldi horietan parte hartzera deitu dituzte; "eredu sozioekonomiko berri baten oinarriak ezartzeko, guztioi bermatzeko Euskal Herriko baliabideetan eta sortzen den aberastasunean parte izateko bidezko aukera".

Egitaraua

Eskubide ekonomikoak (Politika fiskala, finantza sistema, prestazio sozialak, aurrekontuak). Otsailaren 6an, ostegunean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean.

Eskubide sozialak (Osasuna, hezkuntza, etxebizitza, bizitzaren mantentzea). Otsailaren 13an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Lurralde eta ingurumen eskubideak (Lurraldearen berrantolaketa soziala, ingurumen eskubideak, elikadura burujabetza). Otsailaren 20an, ostegunean Olatzagutiko kultur etxean.

Lanari loturiko eskubideak (Lanaren banaketa, enplegu duin eta kalitatezkoa edukitzeko eskubidea. Indarkeria gabeko bizimodu aske bat emakumeendako). Otsailaren 27an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Hizkuntza eskubideak, jatorri aniztasuna, eskubide kulturalak, aniztasun sexuala, parte hartzea. Martxoaren 6an, ostegunean, 19:00etan Lakuntzako udaletxean.

Etxarri Aranatz

Kataluniako herri galdeketak ezagutzeko aukera aparta

Larunbatean, 11:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean

A13 ekimenak (A13) apirilaren 13rako Etxarri Aranatzen independentziari buruzko herri galdeketa antolatu du. Katalunian aurretik ere izan ziren halakoak eta herrialde hartako esperientzia ezagutarazteko asmoz, ekimenak hitzaldia antolatu du biharko.

A13k Kataluniako galdeketen esperientziaren berri emateko bi hizlari gonbidatu ditu biharko. Batetik, Anna Arqué. Gaur egun Kataluniako Kontsultaren aldeko Koordinakunde Nazionalean Komunikazio eta Nazioarte batzordeetako arduraduna da. Bestetik, Josep Manel Ximenis, 2009ko irailaren 13an Areys de Munen eginiko independentziari buruzko Kataluniako lehen galdeketaren bultzatzaile eta koordinatzailea izan zena. Gainera, 2011tik 2013ra Areys de Munt herriko alkate izan zen. Kataluniako independentziari buruzko kontsultak bultzatzeko Koordinadora Nazionaleko lehendakaria ere bada.

Etxarriko galdeketa

Ekimenetik galdera hau erantzutea proposatuko diete etxarriarrei: *nahi duzu Euskal Herria independente bateko herritarra izan?* A13ko kideek galdeketaren aurkezpenean adierazi zutenez, ariketa demokratiko bat jarri nahi dute martxan, baina, ez hori bakarrik, herritarren arteko harremanak hobetzeko asmoa ere badute galdeketa horren bitartez: "Erabakitzeko eskubidea ariketa praktiko gisa, Etxarri Aranatzen, norberak bere iritzia eman dezan askatasun osoz nahi dugu".

Anna Arqué.

Lizarraga

Labadero zaharra berritzeko asmoa

Lizarragako Kontzejuak aurten aurreikusitako lanen artean labadero zaharreko teiladura dago. Elizaren azpian, Aziturri kalearen iparraldean, larre baten erdian kokatuta dago labaderoa. Kontzejua lanak auzolanean edo norbaiti emanda egitea aztertzen ari da oraingoan. Hori da kontzejuaren aurtengo aurrekontuan jasotzen den inbertsio bakarra. Aurten, guztira, 65.440 euro kudeatuko ditu Lizarragako Kontzejuak.

Eliz-azpin dago labaderoa.

PPSOE,
ETB digitala
Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

urdiaingo udala

ALDAKETA XEHAKATUA.
HASIERAKO ONESPENA

Urdiaingo Udalak, 2013ko abenduaren 19an egin osoko bilkuran, aldaketa xehakatu bat aho batez onetsi zuen, hasiera batean, Urdiaingo Hirigintza Planeamenduan indarra duten Arau Subsidiarioetan. 58.c2 artikuluaren determinazioei dagokie, lurzoru urbanizaezinean eraikitzeko baldintzen gainean. Aldaketaren sustatzailea Javier Galarza Ostiza da.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluan xedatuari jarraikiz, espedientea jendaurrean egonen da hogei egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, interesdunek azter dezaten eta bidezko alegazioak aurkez ditzaten.

Urdiainen, 2013ko urtarrilaren 16an.

Alkatea: Sebastián Aristizabal Irigoien

Iragarkiaren kodea: L1318099

URDIAINGO UDALA

SAKANA

Kalitate turistiko hiru Q diploma Sakanara

Pasa den astean Madrilen ospatu zen Fitur azokaren baitan ICTEk kalitate turistiko Q diplomak banatu zituen. Establezimenduen "produktuen eta zerbitzuen kalitatea bermatzen du" aitortza horrek. Guztira 400 izan ziren eta haietatik 51 Nafarroako turismo establezimenduek jaso zituzten. Sakanako hiru establezimenduk jaso zuten kalitate aitortza: Arbizuko eko kanpina, Etxarri Aranazko kanpina eta Urdiaingo Kaluxa taberna-jatetxea.

Olatzagutia

Industrialdeko gobernuaren lursailen prezioak bere horretan

Nafarroako Gobernuak Akinorruti industrialdean duen lur-sailen salmentarako prezioa bere horretan mantendu du, enpresak ezartzeko erraztasunak emateko. 2008tik ez du prezioa igo eta 53 eurotan (BEZ kanpo) mantendu du metro karratua.

Konpetentziak CPVri jarritako isunak berretsi ditu auzitegiak

Espainiako Auzitegi Nazionalak Nafarroako porlanaren sektoreko bost enpresek aurkeztutako helegitea eta berretsi egin ditu Espainiako Lehiaren Batzordeak jarritako isunak. Cementos Portland Valderrivas (CPV), Beriaingo Hormigones Beriain, Arangurengo Canteras de Echauri y Tiebas, Iruñeko Canteras y Hormigones Vre eta Cemex enpresek Konpetentziaren Defentsarako Legea hautsi zuten 2008an eta 2009an. Enpresek Espainiako Auzitegi Gorenean helegitea aurkezteko aukera dute.

Konpetentziaren kontrako jardueragatik zigortu dute CPV.

Batzordeak jarritako isunaren erdia, 5.726.431 euro, Olatzagutiko porlandegiaren jabe den CPVk ordaindu beharko du. CPVk gainera 959.277 euroko isuna jaso duen Vre SA enpresaren jabetzaren erdia du. Sakanan presentzia duen zementu konpainiak guztira 6.206.069,5 euroko isuna jaso du. Gainera, Lehiaren Batzordeak "informazio guztia ez ematea, okerra edo faltsua ematea" leporatu zion CPVri eta, horregatik, 1.285.649 euroko isuna jarri zion.

Salaketa

Hormigones Pamplonak salatu zuen gertaera. Espainiako Lehiaren Batzordeak ebatzi zuenez, Nafarroan eta inguruko lurraldeetan "porlanaren, agregakinen eta morteroaren prezioak finkatzeko eta pixkanaka igotzen joateko eta merkatua banatzeko akordioak egin" zituzten. Erakundeak ebazpenean dioenez, "merkatuan konpetentzia mantentzeko konpetentziaren kontrako jarduera okerrenetako bat kartelak dira eta kontsumitzaileei kalte handiagoak sortzen dizkie".

Ziordia

Aralurrek araudira egokitu beharko du pabilioi bat

Pasa den urte akaberan auzitegiek emandako epai batean jaso zen Aralur SL enpresak egindako pabilioi berria legez kanpokoa dela. Legera egokitzeko Ziordiko Udalak aldez aurretik hirigintza arloan egindako hainbat eskaera bete beharko lituzke: urbanizazioa, lagapenak eta beste. Ziorditik adierazi digutenez, gaur egun enpresan ez dago jarduerarik.

Lantegiaren inguruan 30 tona inguru materiale pilatuta daude.

2012ko udaberri hasieran Aralur enpresa Gipuzkoan atez ateko bilketarekin jasotako materia organikoa, guztiz konpost bihurtu gabea, jasotzen hasi zen. Ziordiarrek usainengatik kexu agertu ziren. Udalak Nafarroako Gobernuari jakinarazi zion hondakinak behar bezala biltegiratuak ez zeudela. Forozainen ikuskaritzaren ondoren, jarduera hori egiteko Aralurrek hainbat lan egin behar zituela adierazi zuen gobernuak. Gaur egun 30 tona inguru materia daude lantegi inguruan.

Sakana "berpizteko" dinamika jarri du martxan Ernaik

Dinamikaren aurkezpenean parte hartu zuten gazteak. ERKUDEN RUIZ BARROSO

Sakana Gorria dinamikaren helburua ibarreko egoera "aldatzea" da

Sakanan "alternatiba berriak eraiki" eta egoera "aldatzea" da Sakanako Ernaik aurkeztu duen Sakana Gorria dinamikaren xedea. Sakanako gazteen kezka nagusiena "egoera sozioekonomikoa" da Ernaik jakinarazi duen moduan: "Gazteei egindako galdeketan sozioekonomia behar berezietako bat dela ikusi genuen". Sakana "biziberritzeko" gazteek elkarrekin lan egin behar dutela adierazi dute.

Proiektua prestatzen hilabeteak igaro dituztela diote gazteek. Helburua Sakanan "bizi, lan eta ikasi" ahal izatea da. Dinamikak bi fase izango ditu: lehenengoa prestakuntza eta bigarrena alternatibak ireki eta teoriak praktikan jartzea. Lehenengo fasea ostiralean jarri zuten martxan. Otsailaren 2an Errekateor Gasteizko etxe okupatura bisita egingo dute hango gazteekin hitz egiteko eta esperientziak elkartrukatzeko: "Eta zeinek daki? Agian etorkizunean Sakanan etxe hutsak okupatzeko ideia ematen digute". Lehenengo faseak maiatza arte iraungo du.

El Salvador "bihotzean" FMLNren aldeko Altsasuko ekitaldia

Igandean El Salvadorren presidentea aukeratzeko hauteskundeak izanen dira. Hauteskunde kanpaina amaitzear zela Altsasutik elkartasuna jaso du El Salvadorreko Farabundo Marti de Libercaion Nacional (FMNL) alderdiak eta bere hautagai Salvador Sanchez Crén.

Igandean El Salvador eta Euskal Herria arteko harremana eta elkartasuna agerian gelditu zen Iortia Kultur Etxean ospatutako ekitaldian. Francisco Mena Sandoval El Salvadorreko kontsula izan zen eta Pakito Arriarani, Begoña Garciari eta Marta Gonzalezi, Ertamerikako herrialdean hildakoei, omenaldia egin zieten.

El Salvadorren Lagunak antolatu zuen FMLNren aldeko ekitaldia Altsasun. "Laster hauteskundeak izango dira eta gure laguntza eskaini nahi diegu", adierazi zuen Peio Goiatxe El Salvadorreko Lagunak taldeko kideak. "El Salvador bihotzean dugu. Omenalditxo hau eskaini nahi diogu El Salvadorri". El Salvador eta Euskal Herriaren arteko elkarrekiko elkartasuna "betidanik" izan dela esan zuen Goiatxek.

FMLNk Ertamerikako herrialdean egindakoaren berri eman zuen ekitaldian, izan ere, Frentea gobernuan egondako urte hauetan "komunitateek" garrantzia hartu dute. "Proposamen herrikoia egiten du FMLNk. Adibidez, eskolara eraman behar dituzten uniformeak egiteko kooperatibak sortu ditu herrietan, nekazariei lurra, haziak, eta abar ematen zaizkie aurrera egin ahal izateko, jubilatuei soldata ematen zaie… Horrela aurrera egin dezakete. Eskuina gobernuan egon zenean baztertuta zituen politika hauek". Frentearen lehentasunak herriaren bizi kalitatea hobetzen jarraitzea, memoria historiakoaren inguruan lan egitea, ALBAn sartzeko aurrerapausoak ematea, eta abar dira".

Pupusak prestatzen. ERKUDEN R.B.

Ekitaldian FMLNkoek Frenteak herrietan egindakoaren berri eman zuten eta Euskal Herriak Ertamerikako herrialdearekin duen elkartasuna eskertu zuten bideo baten bidez. "Haien bizitza eta haien herria ez zen batengatik" bizitza ematea ez zutela ulertzen nabarmendu zuten handik.

» Irurtzun

Makil hotsak jarraituz: zorion etxe hontako denoi...

Santa Ageda koplak kantatuko dira asteartean

Santa Ageda eguneko bezperan, otsailaren 4an, asteartean, sakandarrak Santa Ageda koplak kantatuz eskean aterako dira herri guztietan: Zorion etxe hontako denoi, oles egitera gatoz... Antzinako ohiturak berreskuratuz eta makila lagun, lurrari esnatzea eskatuko zaio gure herrietan egun berezi. Irurtzunen, esaterako, Aizpea euskara taldeak 18:30ean jarri du hitzordua.

» Zuhatzu

Asteartean udalarekin bilera Zuhatzun

Arakilgo Udaleko ordezkariak eta Zuhatzuko Kontzejukoak asteartean bilduko dira, udala ibarreko 12 herrietako hautetsiekin egiten ari den bilera errondaren barruan. Topaketa horietan udalak herrietan dauden premiak bertatik bertara ezagutu nahi ditu. Kontzejuetako ordezkariekin bildu ondoren, zuhatzuarrekin bilera irekia eginen du udalak, 19:00etan izanen da. Arakilgo Udalaren martxa azaldu eta herritarrek haien eskaerak luzatzeko aukera ere izanen da.

» Lakuntza

Balkoiak edertu nahi dituzte. UTZITAKOA

Lakuntza erdigunea ihoteetarako prestatzeko deia

Ihote festak bertan direla eta, Txingurriyek, laguntza eta aisialdi taldeak, proposamena luzatu die lakuntzarrei: apaingarriekin herri erdigunea ihoteetarako janztea eta girotzea. Interesa duen guztiari asteazkenetan, 15:30etik 17:00etara, udaletxetik pasatzeko gonbitea egin die. Ihote festarako apaingarriak egitearekin batera, lakuntzarren arteko harremanak sendotzea du helburu ekimenak; "gustuko zerbait eginez aise eta gustura senti gaitezen". Txingurriyetik parte hartzeko deia egin dute.

» Altsasu / Olatzagutia

Kintoen ospakizuna hastera doa

Pasa den urtean bezala asteartetik aurrera kintoak Altsasun eta Olatzagutian euren festa ospatuko dute. ARTXIBOA

Asteartean hasiko dituzte kinto ospakizunak Olaztin eta Altsasun

Egunak aurrera doaz eta Santa Ageda bezperetan gaude. Kintoen festen txanda da, beraz. Goiztiarrenak kinto olaztiarrak izanen dira. Asteartean hasiko dituzte ospakizunak aurtengo 13 kintoek, Santa Ageda bezperan, Clinkerren egingo duten afariarekin. Eta hurrengo igandera bitartean ospakizunetan murgilduta egongo dira. Baserritarrez jantzita guztiak, mutilak apaindutako makila lagun, festa egun politak dituzte aurrez aurre.

Asteazkenean, Santa Ageda egun handian, goizean eskean arituko dira. Ondoren elizara joango dira eta segidan opilak banatuko dizkiete alkateari, medikuari, apezari eta herriko gazteenari eta adinduenari. Egunero txarangaren laguntza izanen dute eskean aritu bitartean eta ondorengo ospakizunetan. Igandera bitarteko bazkariak eta afariak Clinker jatetxean egingo dituzte.

Bestalde, hurrengo larunbatean Olaztiko kintada guztiek ospatuko dute Santa Ageda. Bazkari eta afari potoloen txanda izango da. Parranda ordu txikiak arte luzatuko da Olaztin eta plazan dantzaldia izango da.

Altsasun elkarrekin

Altsasuko 2014ko kinta 44 kintoz osatuta dago; 19 neska eta 25 mutil, 2013an bezala. Aitor Lizarraga izango da erregea, Beñat Iglesias erregeordea, Maialen Misiego erregina eta Ainhoa Santano erreginordea. Asteartean, Santa Ageda bezperan, meza elizkizuna izanen dute eta irteeran zortzikoa dantzatuta, Santa Agedan hasiko dira ospakizunak.

Aurreko urteko nobedadeari jarraiki, aurten ere neskek eta mutilek batera eskatuko dute, Santa Ageda egunean. "Denak elkarrekin aterako gara eskatzera, Santa Ageda egunean" adierazi digu Maialen Misiego erreginak, guztia prest dutela gaineratuta. Horretaz gain, aurten 44 opil prestatuko dituzte, kinto eta kinta bakoitzak berea. "Opilak jasotzera adostutako tokietara joango gara, eta ez nesken etxeetara lehen egiten zen bezala" gaineratu du erreginak. Erregea, erregina, erregeordea eta erreginordea joango dira opilak jasotzera, boteroarekin. "Sabin Aramendia izanen da boteroa" azaldu digu Misiegok. Ateratako guztiarekin 5 eguneko ospakizuneko bazkari, afariak eta beste estaliko dituzte. Jakina, zortzikoa neska eta mutil guztiek dantzatuko dute. "Arratsaldero zortzikoa dantzatuko dugu plazan" dio.

Juan Cruz Bengoetxea "Piloto" eta Andoni Beramendirekin aritu dira zortzikoa, jota eta porrusalda ikasten, gauero. Festa hasteko gogoz daude. Jakina, egun handietarako jantziei azken ukituak ematen dabiltza denak. Baserritar jantzia neskek, eta praka eta alkandora txuria mutilek, kaikuarekin, txapelarekin, bularra gurutzatzen dien zapiekin, zintaz apaindutako makilarekin eta eskean aritzeko zilarrezko erretiluarekin.

Santa Ageda egun handian ere zilarrezko, urrezko eta platinozko ezteiak betetzen dituztenek kintada ospatuko dute. Gainontzeko kintada guztiak otsailaren 8an bilduko dira ospakizunean.

Olaztiko 13 kintoak

Asier Lorea, Urtzi Markinez, Jon Baztarrika, Nahia Galbete, Joana Perez, Hodei Arguelles, Jon Arguelles, Leire Ayestaran, Andere Etxarri, Eduardo Gastaminza, Igone Imaz, Joseba Imaz eta Xabi Cruz.

» Irurtzun

Hilerrirako bigarren sarrera

Pasa den urtean hilerrian egiten hasi zen hobekuntza lanekin segituko du aurten Irurtzungo Udalak. Oztopo arkitektonikoak kentzeko, hilerrian sarrera berria egin nahi du udalak. Kanpo santuaren beheko aldean eginen litzateke sarrera hori, Hilerri bidea kalean. Gaur egun dagoen harresia berritu beharra dago, mugitua baitago. Hura berritzearekin batera atea zabaldu nahi luke udalak. Horrela kanpo santuak goitik eta behetik luke sarrera. Udalak diru-laguntza eskatu dio Nafarroako Gobernuari.

Bestalde, Itxesia mendiko urak jasotzeko lanak ere eginen ditu udalak. Euria egiten duenean, Iberdrolak duen argindar estaziora menditik ur guztia jaisten da eta aldapan behera egiten du. Ondorioz, Izurdiagarako errepidea eta igerilekura eramaten duen kaleak bat egiten duen tokian ur baltsak sortzen dira, trafikoari eraginez, baita aldamenean dagoen enpresa bati ere. Udalak eta Iberdorlak akordioa lortu dute. Enpresak argindar estazioan urak jasotzeko lanak eginen ditu eta udalak igerileku kalea jasotzeko lanak bere gain hartuko ditu. Azken horien aurrekontua 11.500 eurokoa da.

Hilerrira sartzen.

» Dorrao

Bi lan aurreikusi ditu kontzejuak

Dorraoko Kontzejuak aurten 81.200 euroko aurrekontua izanen du. Hala ere, aurreikusitako lanak Ergoienako Udalak emandako diru-laguntza batiesker eginen ditu kontzejuak. Batetik, Alondegiko teilatua konponduko da. Gainera, ur biltegian soberan dagoen urarekin baratzak ureztatzeko asmoa luke kontzejuak. Bestalde, Dorrao eta Unanu lotzen dituen dermioko bide bat berritzeko aukera aztertu zen, baina ez da eginen.

GANUZA SUKALDEAK
Sukalderako altzariak
Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak
Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuza@cocinasganuza.com
www.cocinasganuza.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

CONSTRUCCIONES ALZATE s.l.
ALZATE ERAIKUNTZAK s.l.
Zubeztia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionesalzate.com

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA
Santa Agedan
ogitartekoak barran
948 467 876
Altsasu

GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)
TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA
www.tanatoriosirache.com

Joxe Mari Martinez de Esteban

Urtero elkartzen gara
eta zu gurekin egoten zara,
inoiz ez zaitugu ahaztu.

1972ko urtean jaiotako kintoak

Tomasa Napal

II. urteurrena

Gure artean jarraitzen duzu.

Zure familia

2014ko urtarrilaren 30a.

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin
Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.net

Vitori Fernandez Zelaia

Bizi izan duzun bezala joan zara, baina ezagutu zaitugun artean, hutsune handi bat utzi duzu.

Maite zaitugu.

Jose Mari Nuñez, Carmina Lezea eta beraien familia guztiaren partez

Altsasun, 2014ko urtarrilaren 26an.

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu

Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

LURSAILAK

SALGAI

Altsasun hiru lursail salgai. Bat Dermaun eta beste biak Ulaiar aldean. Interesatuek hots egin dezatela 948- 46 74 29 telefonora.

Ikastaroak

Moldatze eta hustutze ikastaroa. Irudiak egin eta molde bidez edozein materialetan hustutzeko behar den guztia ikasiko duzu. Eman izena 635-60 15 91 telefonoan, www.harbizi.com, info@harbizi.com, Loinazbide 3 Arbizu.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu .Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea http://www.ifes.es.

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es.

Lehiaketa

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuek euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrak

Nafarroako herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

CAF-ELHUYAR beka. Zientziaren/teknologiaren eta gizartearen arteko elkarrekintza landuko duten proiektuei lagundu nahi die sariketak. Proiektuen izaera zientifikoa, artistikoa zein soziologikoa izan daiteke, eta arlo zientifikoa eta soziala harremanetan jartzea izan behar du haien muinak. Ilbeltzaren 31ra arte. Saria 5.000€. Informazioa: www.elhuyar.org.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Etxeko lantxoak – trukea. Informazio gehiago larrezabaldk@inigoaritza.com.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

JAIOTZAK

- **Uxuri Fortuna Anso,** ilbeltzaren 16an Altsasun.
- **Xuban Sanchez Ongai,** ilbeltzaren 16an Uharte Arakilen.
- **Beñat Apaolaza Delgado,** ilbeltzaren 19an Lakuntzan.
- **Nora Mendinueta Arakama,** ilbeltzaren 20an Arbizun.
- **Xuban Agerre Torrico,** ilbeltzaren 22an Lakuntzan.

HERIOTZAK

- **Maria Blanca Salgado Austri,** ilbeltzaren 22an Olaztin.
- **Juana Agirre Aiestaran,** ilbeltzaren 26an Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

ALTSASU ETA IRURTZUN ONGI: Espainiako Kluben arteko txapelketako 4. jardunaldian, Irurtzunek banakako eta binakako partidak irabazi zizkion Logroñoko Titin III.a klubari. Altsasu Paz Zigandaren kontra aritu zen. Banakakoan ikastola nagusitu zen eta binakakoan Altsasu.

kirola >>

Aizkora

Erdozia-Beltza Zilarrezkotik kanpo

Ostiralean Zilarrezko Binakako finalerdia jokatu zen Zerainen. Hiru bikote aritu ziren: Zaldua-Dorronsoro, Mugertza III.a eta Larrañaga eta Juanjo Erdozia eta Goizeder Beltza etxarriarrak. Guztira 5 lan egin behar zituzten, eta aurreikusi moduan Mugertza III.a eta Larrañaga faboritoak izan ziren azkarrenak (18:29) eta beraiek lortu dute finalerako txartela. Hala ere, lan asko egin behar izan zuten, etxarriarrek lan bikaina egin zutelako (19:25). Zaldua eta Dorronsoro izan ziren azkenak (22:09).

Saskibaloia

SAKANAKO I. SASKIBALOI TOPAKETAK

7. jardunaldia hartuko du Zelandik

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako I. Saskibaloi Topaketak antolatu ditu premini mailako taldeendako (8 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak). Igandean 7. jardunaldia hartuko du Altsasuko Zelandi kiroldegiak.

7. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Zelandin
11:00etan Putterri – Beriain
12:00etan Martinsasti – Balankaleku

Pilota

Berpiztea

EZKURDIAK ETA ZABALETAK 6 TANTOTAN UTZI ZITUZTEN XALA-ZUBIETA. BIHAR OLAIZOLA II.A ETA BEGINO AHALTSUAK IZANEN DITUZTE ARERIO. ALDIZ, XALA ETA ZUBIETAK EGOERARI BUELTA EMAN NAHI DIOTE TITIN ETA MERINO ERRIOXARREN KONTRAKO LEHIAN.

Sailkapena:

Olaizola II.a-Aretxabaletak	6 puntu
Irujo-Barriolak	4 puntu
Berasaluze-Albisuk	3 puntu
Xala-Zubietak	3 puntu
Urrutikoetxea-Beroizek	3 puntu
Bengoetxea VI.a-Galarzak	2 puntu
Titin III.a-Merino II.ak	2 puntu
Ezkurdia-Zabaletak	1 puntu

Asko kostata baina lortu dute. Ezkurdiak eta Zabaletak Binakako lehen partida irabazi zuten ostiralean Hendaian, Xalari eta Aitor Zubieta etxarriarrari 22-6 irabazi eta gero. Garaipen itzela izan zen arbizuarrarendako eta etxarrendarrarendako, aspaldi bilatzen zutena eta lortzea kosta zaiena, baina oso mingarria Xalarendako eta etxarriarrarendako.

Hendaiako partida partida beste modu batean planteatzea erabaki zuten Ezkurdiak eta Zabaletak. "Txapelketa ahaztu eta zenbat jokatzeko gai garen demostratzera aterako gara" adierazi zuen Ezkurdiak material aukeraketan. Eta badirudi estrategiak funtzionatu duela, hasieratik nagusi izan baitziren sakandarrak. Astindu ederra eman zieten Xalari eta Zubietari, takada batean 10-0 aurreratu baitziren, sakea aprobetxatuz. Hezetasunagatik Hendaiako frontoia oso irristakorra zegoen eta lesionatzeko beldurrez atera ziren kantxara pilotariak; Ezkurdia eta Zabaleta egokitu ziren hobe egoera horretara. Zubieta, aldiz, ez. Aitor Zubieta estu hartzea izan zen sakandarren estrategia eta asmatu zuten, etxarriarra ezinean aritu baitzen, Xala ezin lagundu. Katedrak Xala eta Zubietaren garaipena espero zuen baina sakandarrek sekulako sorpresa eman zuten. Zabaletak izugarri astindu zuen pilota eta Zubieta zigortu zuen, eta aurreko koadroetan Ezkurdiak ongi asmatu zuen. Xala ia desagertua egon zen. Azkenean 6 tantotan utzi zituzten Xala eta Zubieta.

Arerio latzak

Lehen puntua lortzeak konfiantza eman die Ezkurdiari eta Zabaletari, eta konfiantza hori guztia eta gehiago beharko dute bihar, larunbatean, txapelketan jaun eta jabe diren Olaizola eta Aretxabaleta ordezkatuko duen Beginoren kontrako partidan. Orain arte nagusitasun izugarria erakutsi dute Asegarcekoek, baina sakandarrek ez dute ezer galtzeko eta lehen garaipenak ematen duen betekadarekin ea atzera ere sorpresa emateko gai diren.

Bestalde, ongi hasi zuten txapelketa Xalak eta Zubietak baina azken jardunaldietan maldan behera egin dute. Konfiantza eta jokoa berreskuratu beharrean daude lapurtarra eta etxarriarra, eta ea igandean Titin eta Merinoren kontra lortzen duten. Partida Logroñon jokatuko dute, errioxarren gotorlekuan, eta horrek ez die mesede eginen. Baina ea buelta etortzen den.

Materialarekin pozik

Asteazkenean materiala aukeratu zuten, Labriten, Ezkurdiak, Zabaletak, Olaizolak eta Beginok. Orain arte Ibai Zabalak ordezkatu du Aretxabaleta, baina Asegarcek Ladis Galarzak txapelketatik aldendu du, "esperotako errendimendua ez emateagatik", eta hemendik aurrera Ibai Zabalak osatuko du bikoa Bengoetxearekin. Beginok 2011n osatu zuen bikoa Olaizolarekin eta txapeldunak izan ziren, eta bihar Aretxabaleta ordezkatuko du. "Txapeldunak izan ziren eta sekulako bikotea osatzen dute. Jokoa atzera bideratu beharko dugu eta Ezkurdiak sortzen zaizkion aukerak primeran aprobetxatu beharko ditu, aurrean Aimar baitu" adierazi zuen Zabaletak. "Zabaletak Hendaian bezala jokatzen badu, oso zailak jarriko dizkigu gauzak" azaldu zuen, bere aldetik, Beginok. Lau pilotariak kontentu azaldu ziren materialarekin. Sakandarrenak baino pilota biziagoak hautatu zituzten Asegarcekoek.

7. jardunaldia

Irujo-Barriola / Urrutikoetxea-Beroiz (ostiralean, 20:15ean, Irunen. ETB1)
Olaizola II.a- Begino (Aretxabaletaren partez) / Ezkurdia-Zabaleta (larunbatean, 17:00etan, Iruñean. NITRO)
Berasaluze-Albisu / Bengoetxea-Zabala (larunbatean, 17:30ean, Idiazabalen)
Titin III.a-Merino / Xala-Zubieta (igandean, 17:00etan, Logroñon. ETB1)

Txirrindularitza

Rural Kutxa eta Movistarren aurkezpena

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeak atzo iluntzean burutu zuen taldearen aurkezpena, Iruñeko Baluarten. Sakanatik sortutako taldeak otsailaren 9tik 12ra jokatuko den Mallorcako Challengean parte hartuko du. Bestalde, UCI Pro Team mailan dabilen Movistar taldeak, gaur egingo du aurkezpena, Telefonicako egoitza nagusian, Madrilen.

ERBITI 74.A AUSTRALIAKO TOUR DOWN UNDERREN

Simon Gerransenek irabazi du Australiako proba, Cadel Evansi segundo eskas bat aterata. Movistar taldeko Imanol Erbiti hiriberriarra 74.a sailkatu zen, 24:07ra.

Txirrindularitza

Pablo Urtasun Txilen

PinoRoad talde txiletarrarekin, Pablo Urtasunek denboraldiari hasiera emango dio. Euskaltel-Euskadi taldea desagertu eta gero Murtzian egoitza duen PinoRoad talde txiletarrean aurkitu du tokia urdiaindarrak. 28 urteko txirrindulariak argi zuen txirrindularitzan jarraitu nahi zuela eta pozik dago talde kontinental honek eskaini dion aukerarekin. Urtasun laranjaz jantzita ikusi dugu azken urteotan, baina beltza izango da bere kolore berria.

PinoRoad taldeko txirrindulari guztiak, Urtasun barne, Txilen kontzentratuta daude egunotan. Astelehenean Skechers Chile talde babeslearen egoitzan izan ziren taldeko txirrindulari guztiak, bisitan, eta denboraldia prestatzeko entrenamendu eta lanetan murgilduta daude guztiak. Urdiaindarrak bertan emango dio hasiera denboraldiari eta talde berriarekin Dalcahueko Itzulian debutatuko du. Itzulia Chiloéko Dalcahue herrian jokatuko da, larunbatean eta igandean.

Urtasun eta Oroz Txilen, Skechers Chileko egoitzan. PINOROAD

Gainontzekoak

Talde laranjan zebiltzan beste txirrindulari sakandarrei dagokienez, Egoi Martinezek txirrindularitza uztea erabaki du eta Gorka Verdugo etxarriarra eta Jorge Azanza altsasuarra oraindik talderik gabe daude eta litekeena da txirrindularitzari agur esan behar izatea.

Pilota

Sakandarrak Zizurko lau t´erdian

Zizurren 19. Zizurko lau t´erdiko txapelketa jokatzen ari da.

Sakandarren emaitzak:

Gazteak:
Santxez (Esteribar) **18** – Aldaz (Pilotajauku) **0**
Irurita (Oberena) **18** / Mariezkurrena (Irurtzun) **7**
Sevilla (Zaramaga) **18** / Galarza (Pilotajauku) **6**
Kimuak:
Lizarraga (Gure Pilota) **16** – Villamea (Gure Txokoa) **6**
Rebolé (Cantolagua) **13** – Gabirondo (Pilotajauku) **16**
Haurrak:
Ganboa (Aldabide) **16** – Villanueva (Zugarralde) **10**

Trinketea

Murgiondok eta Etxeberriak galdu

Nafarroako Trinkete Txapelketako 3. jardunaldian, eskuzko binakakoan, Oberenako Koldo Murgiondo eta Etxeberria etxarriarrek atzera ere galdu egin zuten, 40-28, Martikorena eta Albisuren kontra.

Triatloia

Sakanako Triatloi Taldearekin federatzeko epea zabalik

SAKANATRI@GMAIL.COM EPOSTAN EGIN BEHAR DA ESKARIA

Sakanako Triatloi Taldearekin federatu nahi dutenek zabalik dute eskaera egiteko epea. Lizentzia atera nahi duenak ondoko posta elektronikora bideratu beharko du eskaera. sakanatri@gmail.com. Bertan egin beharrekoaren informazio guztia jasoko du. Bestela, ondoko telefonora jo daiteke: 649 446 094 (Felix). Lizentzia honekin Euskal Herrian edo bertatik kanpo antolatutako triatloi probetan parte hartzeko aukera izango dute triatletek.

Triatleten parte hartzea bulkatzeko, I.Tri-Challenge Sakana

Partaidetza bulkatzeko Sakanako Triatloi Taldeak I.Tri-Challenge Sakana antolatu du helduen mailan. Bertan kadetetik aurrerako kategorietako triatletek parte hartu ahal izango dute . Helburua triatletak inguruko, estatuko edo nazioarteko probetan parte-hartzea da. Izan ere, duatloi, triatloi eta akuatloiko proba guztiak puntuagarriak izango dira.

Autonomia erkidegoetako proba arruntek puntu bateko balioa izango dute; autonomia erkidegoetako txapelketa absolutuko probek, 2 puntuko balioa; Estatuko egutegiko proba arruntek, 2 puntuko balioa; Espainiako txapelketako probek, 3 puntukoa; eta, nazioarteko probek 3 puntuko balioa.

Sakana Triatloi Taldeko Berdud eta Gomez Arbizuko 2013ko duatloian.

Horrela, probetan parte hartzeagatik puntuak pilatuko dituzte triatletek eta Sakana Triatloi Taldeak ondoko sariak banatuko ditu: 2015eko kuotan eta lizentzian deskontuak; klubaren ekipamendua erosteko deskontuak; klubaren laguntzaileei kirol materiala erosteko deskontu txartela; osasun azterketak edo esfortzu probak egiteko deskontuak; 2015eko probetan izena emateko deskontuak; eta, beste sari batzuk. 2014ko I.Tri-Challengean parte hartu nahi duten triatletek abenduaren 1a baino lehen ekarri beharko dute euren proben zerrenda, bakoitzak berea prestatu behar baitu.

Atletismoa

28 sakandar Idiazabalgo herri krosean

Francisco Javier Gomez izan zen lehen sakandarra

Oso jendetsua eta parte-hartzailea izan zen igandean Idiazabalen jokatutako 34. Idiazabalgo Herri Krosa (10,3 km). 645 korrikalari iritsi ziren helmugara, Beñat Arnaiz arrasatearra buru zela (33:47). Proban 24 korrikalari sakandarrek hartu zuten parte, eta guztietan azkarrena Francisco Javier Gomez izan zen. Altsasuarra 25.a iritsi zen helmugara (36:39). Emakumezkoetan Cristina Loeda nagusitu zen (38:26).

Andoni Azanza Idiazabalgo lasterketan.

Sakandarrak 34. Idiazabalgo Herri Krosean:

1.	Beñat Arnaiz	33:47
25.	Fco. Javier Gomez	36:39
52.	Sergio Garcia de Eulate	38:20
54.	Andoni Azanza	38:22
83.	Gorka Garcia de Eulate	39:17
87.	Julen Paniagua	39:19
104.	Juan Carlos Gomez	40:02
107.	Juantxo Arregi	40:06
134.	Beñat Katarain	40:41
160.	Isidro Asurabarrena	41:17
161.	Juantxo Azurmendi	41:17
198.	Juan Carlos Villalobo	42:15
232.	Javier Borrega	43:10
270.	Juan Carlos Perez	44:07
298.	Mikel San Martin	44:54
365.	Erkuden San Martin	46:34
440.	Mari Gwen Davies	49:15
471.	Jose Ramon Ramirez	50:09
472.	Jonathan Medina	50:10
489.	Saray Garasa	51:22
490.	Juan Antonio Palacios	51:28
500.	Maite Zabaleta	51:41
501.	Jose Javier Maiza	51:41
524.	Isabel Pozueta	52:41
532.	Ixa San Martin	53:34

Areto futbola

Racing San Migel, Futsal Sakanako liderra

PUNTU BATERA DAGO AUZOMOTOJORIK

10. jardunaldiko emaitzak

Iturmendi **1** – Racing San Migel **10**
Bunker **1** – Etxarriko gaztetxie **5**
Bil Toki **2** – Auzomotojorik **4**
Atsedena: Arbizu

Futsal Sakana areto futbol txapelketako 10. jardunaldia jokatu da. Racing San Migel eta Iturmendiren arteko partida oso lehiatua izan zen. Atsedenaldira 3 goleko errentarekin joan zen Racing, baina bigarren zatian sekulako gol festa ospatu zuten, 1-10 gailendu baitziren. Asierrek 5 gol sartu zituen eta Mikelek eta Jesus Angelek hiruna gol.

Bestalde, Etxarriko gaztetxiek 1-5 hartu zuen menpean Bunker. Faltaz betetako partida izan zen. Hiru penalty bikoitz jaurtiki ziren eta arbitroak bi jokalari kaleratu behar izan zituen. Gaztetxeko Jurgik hat tricka (3 gol) sartu zuen. Eta, bukatzeko, Bil Toki eta Auzomotojorik taldeko partida oso lehiatua izan zen. Bi taldeak parez-pare aritu ziren; atsedenaldira binako berdinketarekin joan ziren, baina azkenean, Auzomotojorikek eraman zituen hiru puntuak (2-4). Migel Ganchok (Bil Toki) eta Beñatek (Auzomotojorik) bina gol sartu zituzten.

Sailkapenean Racing San Migel da liderra (22 puntu), Auzomotojorik puntu eskas batera duela (21 puntu). Arbizu da hirugarrena (15 puntu). Atzetik daude Bil Toki (9 puntu), Etxarriko Gaztetxie (7 puntu), Iturmendi eta Bunker (seina puntu). Golegile edo pitxitxi sailkapenari dagokionez, Asier Turunbai da pitxitia (18 gol), Jurgi Kintana (17 gol), Jesus Angel Alvarez (16 gol) eta Joseba Razkin (14 gol) gertu dituela.

www.futsalsakana.es
Txapelketako informazio guztia. Facebook eta twitter sare sozialetan ere.

Etxarriko Gaztetxie.

Asteburuko jardunaldia

Ilbeltzaren 31n, ostiralean, Uharte Arakilen
20:00etan Racing San Migel – Bunker
21:00etan Arbizu K.T. – Iturmendi
22:00etan Etxarriko Gaztetxie – Bil Toki
Atsedena: Auzomotojorik

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

22. JARDUNALDIA

VALTIERRANO 1 – LAGUN ARTEA 0
18. minuturako Valtierranoko Jonathan Resak gola sartu zuen. Nahiz eta bigarren zatian lakuntzarrak partidari buelta ematera atera eta berdintzeko aukera izan, Valtierranok abantaila ongi defendatzen jakin zuen eta lakuntzarrak punturik gabe etorri ziren etxera. Lagun Arteak oso gertu ditu jaitsiera postuak eta igandean postu horietan dagoen Murtxante irabazi beharrean dago, egoerari buelta emateko.

Sailkapena >>
1. San Juan .....**50 p**
15. Lagun Artea .....**23 p**

Asteburuko jardunaldia
LAGUN ARTEA – MURTXANTE
(Igandean, 16:15ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

17. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA B 4 - ARDOI 0
BETI ONAK B 4 - ALTSASU 3
BERRIOZAR 5 - ETXARRI ARANATZ 2
Lagun Artea B taldeak 4-0 hartu zuen menpean Zizurko Ardoi, partida oso lehiatuan. Lehen zatia bi goleko errentarekin despeditu zuen Lagunek, eta bigarren zatian garaipena indartu zuen. Goiko postuetako lehian dago Lagun Artea B. Bestalde, Altsasuk gutxigatik galdu zuen. 4-3 irabazi zion Atarrabiako Beti Onak B taldeak. Maila handiko partida izan zen. Hiruna berdintzea lortu zuen Altsasuk, Dario, Aitor eta Andoniri esker, baina 72. minutuan garaipenaren gola sartu zuen Betik.
Bukatzeko, garaipenen bolada hautsi zuen Etxarrik Berriozarren kontra 5-2 galdu ondoren. Lehendabiziko ordu erdian 4 gol sartu zituen Berriozarrek, partida ia erabakita utziz. Etxarri erasoan hasi zen, baina soilik bi gol sartzeko aukera izan zuen, Pablori eta Eduardori esker.

Sailkapena >>
1. Lekunberriko Beti Kozkor .....**39 p**
4. Lagun Artea B .....**30 p**
7. Altsasu .....**25 p**
14. Etxarri Aranatz .....**16 p**

Asteburuko jardunaldia
BETI ONAK B – LAGUN ARTEA B
(Larunbatean, 19:30ean, Atarrabian)
ALTSASU – BETI KOZKOR
(Igandean, 16:00etan, Dantzalekun)
ETXARRI ARANATZ – LAGUNAK B
(Larunbatean, 16:00etan, San Donaton)

Futbola

Sakanako Futbol 8 Topaketaren 8. jardunaldia jokoan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Topaketetan 10. jardunaldia dago jokoan Altsasuko Dantzalekun.

10. jardunaldia

igandean, Altsasuko Dantzalekun
11:30ean Kaixo – Lagun Artea
11:30ean Arbizu K.T. – Txartel
12:30ean Dantzaleku – Tipi Tapa
12:30ean Sayas – Etxarri Aranatz
Atsedena: Urdiain

Mendia

Altsasuko Mendigoizaleekin mendira

2013an Pirinioetan egindako zeharkaldiko argazki ikusgarriak. FERNANDO BENGOETXEA

2014ko mendi egutegia aurkeztuko du Altsasuko Mendigoizaleen taldeak larunbatean, 19:00etan, Iortia Kultur Gunean. Aldi berean, 2013ko mendi ibilaldiak oinarri hartuta proiekzio berezia eginen dute

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak 2014ko egutegia itxi du eta ikasturte honetan burutuko dituen txango, ibilbide eta egitasmoen berri emango du. Horretarako, lehenik eta behin, 2013an egindako mendi irteeretan hartutako irudiekin proiekzio berezia eginen dute bihar, otsailaren 1ean, larunbatean, Altsasuko Iortia Kultur Gunean, 19:00etan. Eta, ondoren, 2014ko egutegia azaldu eta egutegia banatuko dute.

Altsasuko Mendigoizaleak taldeko Fernando Bengoetxeak prestatu du bihar ikusiko den argazkien eta irudien proiekzioa. Taldeak 2013an antolatutako txango eta mendi ibilbideen errepasoa eginen du bertan, ibilbide horietan hartutako irudi ikusgarrien bitartez.

2013an Pirinioetan egindako zeharkaldiko argazki ikusgarriak, Panticosan hasi eta Artousteko trenean despeditzen zena, Aralarko irudiak, Urbasakoak: "Proiekzioarekin guk egiten duguna erakutsi nahi dugu, non ibiltzen garen, zein den gure aktibitatea. Ea, horrela, jendea gurekin etortzera animatzen den" adierazi digu Fernando Bengoetxeak.

Ibilbideak, kirol ekitaldiak, argazki rallya eta mendi proiekzioak

Mendiko ibilbideak egiteaz gain, bi ekitaldi nagusi antolatuko ditu Altsasuko Mendigoizaleak taldeak. Apirilaren 5ean III. Hiru Mendi Zerrak mendi ibilbidea antolatuko dute Altsasu inguratzen duten mendietan barna, eta urriaren 19an, Altsasuko ferietan, argazki rallya. Bestalde, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak eta Dantzaleku Sakana taldeek bat egin dute hainbat kirol ekitaldiren antolakuntzan eta, horrela, urriaren 18an Onddo lasterketa antolatuko dute elkarrekin. Eta, jakina, urtean barna makina bat hitzaldi eta mendi proiekzio antolatuko dituzte. Esaterako, martxoaren 29an Ruth Aguadok "*Irango mendietan eskiatzen*" proiekzioa eskainiko du Iortia Kultur Gunean, 19:00etan.

2014ko egutegia

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak aurtengo egutegia zehaztu du. Ia igandero mendira joko dute, eta nahi duten guztiek egin dezakete bat mendigoizaleekin. Aurreko asteburuan Urbasan ibilbide berezia egin zuten eta hurrengo txangoa igandean bertan egingo dute, otsailaren 2an. Codesetik gertu dagoen Kostalerara joko dute.Urtero errepikatzen diren ibilbideek ez dute huts eginen. Esaterako, urteko lehen igandean Bargagainera jotzen dute, urteko azken egunean Aitzgorrira, Gabonetako aurreko igandean Mendigoizale Egunarekin egiten dute bat Aralarren, eta Ziordia-Ekala (maiatzaren 1ean), Lakuntza-Amezketa (maiatzaren 18an), Altsasu-Arantzazu (irailaren 28an), Altsasuko perimetroaren bira (apirilaren 27an), Bargagaingo finalista (uztailaren 20an), Erkuden (uztailaren 13an) eta beste ez dira faltako. Horretaz gain, abuztuan txango berezia antolatu dute; Vignemaleko itzulia eginen dute, eta irailaren 6 eta 7rako Monte Perdidora joko dute, Pirinioetara. Horretaz gain, Euskal Herrian barna hainbat irteera eginen dituzte: Mendaur, Peña Izaga, Saioa, Palomares, Camille xenda, Collarada, Aratz-Aitzgorri, Gorbea, Txindoki...

Kiroldegia

Kirol Mankomunitateak Udalen babesaren bila

Nafarroako Kirol Mankomunitateak diru-laguntzarik gabe daudela salatzeko, mozioak aurkeztuko dira udaletxeetan

Nafarroan 6 Kirol Mankomunitate daude, tartean Sakanakoa. Nafarroako Gobernuaren ekimenez sortu ziren mankomunitate hauek, 90. hamarkadan, herritarrei kirol praktika egiteko aukera eta eskubidea eskaintzeko, bereziki toki erakunde txiki eta ertainetan eta landa-eremuan.

Diru-laguntzen bilakaera

Urtero Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak kirol aktibitateak bulkatzeko diru partida zehazten zuen Kirol Mankomunitateen jarduna babesteko, baina azken urteetan izugarri jaitsi da. 2011an Nafarroako Gobernuak ez zuen diru-laguntza hori exekutatu eta 2012an partida atera zuten: 100.000 euro 2011ko gastuak estaltzen laguntzeko eta 150.000 euro 2012rako. Partida bi urtetan banatu zuten. 2013rako 180.000 euroko partida zegoen baina ez dute deialdirik atera eta 2014rako ez dago esaterik partidarik ere egongo den. Horrek kinka larrian jarri ditu mankomunitateak. "Diru-laguntzarik ezean landa eremuetako eskualdeetan kirol zerbitzu publikoak arriskuan daude" adierazi dute.

Atxikimenduak bildu

Nafarroako Gobernutik diru-laguntzarik emateko borondaterik ez dagoela ikusita, astelehenean 6 Kirol Mankomunitateetako ordezkari eta teknikariak Bildu-Nafarroa, Aralar-NaBai eta Geroa Baiko parlamentariekin bildu ziren astelehenean. Aipatu parlamentariek mozio bat prestatu behar dute, Nafarroako Udaletara bideratuko dutena, Kirol Mankomunitateei elkartasuna adieraziz eta diru-laguntza hori jaso dezatela eskatuz. "Udalen atxikimenduak jasotzea da kontua, gero gaia Nafarroako Parlamentura eramateko. Gertatzen ari dena gizarteratu nahi dugu, mundu guztiak jakin dezan diru-laguntzarik gabe utzi gaituztela. Ea horrela gehiago presionatu ahal dugun. Aralar-NaBaiko Asun Fernandez de Garaialde Lazkano parlamentariak esan zuen moduan, kalea mugitzea da helburua" adierazi digu Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak. Argazkian, Mank-ek 2013an antolatutako Sakanako Txirrindula eguna.

Kirolaren sustapena kolokan

Izan ere, mankomunitateek 85.000 biztanleri ematen diote zerbitzua Nafarroan. Kirola sustatzen dute: hainbat kirol ekitaldi antolatzen dituzte, ikastaroak, herrietako kirol klubei laguntza ematen diete, herri kirolak sustatu eta abar. Udalak, erabiltzaileek ordaindutako kuotak eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza dira euren diru iturri nagusiak. Aurreko urte hasieran diru-laguntzetarako diru partida zehaztu zuen Nafarroako Kirolaren Institutuak eta, horregatik, mankomunitateek ohiko programazioa antolatu zuten. Baina urte bukaeran ez zen partida gauzatu eta gastuak estali eta justifikatzeko mankomunitateek makina bat arazo dituzte.

Parlamentarien babesa

Egoera salatzeko, Nafarroako 6 Kirol Mankomunitateak Nafarroako Parlamentuko ordezkari politikoekin bildu ziren eta Bildu-Nafarroak, Aralar-NaBaik eta Geroa Baik euren eskaerei baiezkoa eman zieten. Hiru taldeek eskatuta, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari Pruden Indurain Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politika batzordean izan zen azalpenak ematen, eta berak azaldu zuenez, "lehentasunak ezarri dituzte" institutuan. "Nahiz eta Kirol Mankomunitateei emandako laguntza garrantzitsua izan, ez da beste batzuk bezain inportantea" aipatu zuen Indurainek.

kultura >>

Tabarrako politikaren **parodia kritikoa**

Gaur, 21:30ean Irurtzungo kultur etxean

Iluna producciones konpainiak Ramplona2016. Sobrevivir o vivir del sobre antzezlana ekarriko du Irurtzunera gaur. Bere testu ezagunetako baten bertsio berria da antzezlana; hain zuzen, 2010ean taularatu zuen Ramplona 2016. *La siesta de la cultura* obrarena. Orduko hartan Tabarra erreinuko Ramplona hiriburuko udalbatza zen protagonista, 2016ko Europako Kultura Hiriburu izendapena lortzen tematuta zegoena. Ez zuen lortu. Oraingoan protagonistak Tabarrako Gobernuko kideak dira, kontseilari bihurtutako zinegotziak eta presidente bihurtutako alkatea.

Ustelkeria, ezkutuko ordainketak, epaiketak, zerbitzuen pribatizatzeak, dietak eta bestelako akusazioak pilatzen zaizkie. Eta sinesgarritasun apur bat berreskuratzeko saiakera etsituan Gardentasunaren Europako Sarira aurkeztea erabakiko dute. Azken aukera etsia. Oholtzatik kulturarekin batera, osasuna, hezkuntza, azpiegiturak, gizarte zerbitzuak eta beste hainbat gai pasako da. Erreinu horretan esateko asko baitago.

Konpainia

Testu antzerkian espezializatuta, 20 urteko eskarmentua du Iluna Producionesek. Hainbat testugile ezagunen obrak taularatu dituzte, esaterako: Woody Allen, Neil Simon, Alonso de Santos, Manuel Veiga, Sanchis Sinisterra eta abar. Baina 2005ean konpainiak berak sortutako testuak taularatzen hasi zen, bere ekoizpenaren bereizgarri bihurtuz. Hala ezagutu ahal izan ditugu *Cerdo agridulce, Nosotros que crecimos odiando la movida* edota *Euskadi tropikal*.

Fitxa

Antzezleak: Ana Berrade, Oscar Orzaiz, David Larrea, Pedro Izura eta Migel Goikoetxandia.
Zuzendaria: Migel Goikoetxandia.

Altsasu Platea programan

Arte eszenikoen sustapena egitea da bere helburua

Instituto Nacional de las Artes Escénicas y de la Música (INAEM) Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioarekin elkarlanean sortutako programa da Platea. Herrietako kultur egoitzetan "ikuskizunen zirkulazioa berraktibatzeko" asmoz sortu dute programa. Estatu osoko 198 herritan 1.200 bat emanaldi eginen dira programa horren bidez. Horretarako 6 milioi euroko aurrekontua dago.

Platearen bidez udaletako kultur programatzaileek 435 antzerki, dantza eta zirko ikuskizunek osatzen duten katalogo bat izanen dute eskura. Eskaintza horren arabera, udaletako kultur arduradunek programazio proposamena egin beharko dute: gutxienez 4 ikuskizun eta gehienez 15. Hautatutako konpainiak norberarena ez diren hiru erkidegoetakoak izan behar dute.

Altsasu

Programan parte hartzeko baldintzak (gutxienez urtean 20tan programatzea eta 250 aulkiko gela izatea) Altsasuko Iortia kultur guneak betetzen ditu soilik Sakanan. Altsasuko Udalak eskaera egin du eta dagoeneko onartu dutela baieztatu dio INAEMek. Aste honetan aurkeztuko dute Altsasuko programazio proposamena eta otsaila akaberarako jakinen dute onartua izan den. Ez du aparteko inbertsiorik ekarriko. Izan ere, parte hartzen duten konpainiek saldutako sarrerengatik kobratuko dute. Aretoa beteko ez balitz, faltako litezkeen sarrerak INAEMek ordainduko lituzke.

bazterretik

Juankar Lopez-Mgartza

Sakandar bat Andorran

Joan den astean Andorran izan nintzen Nafarroako Unibertsitate Publikoko Mikel Belasko irakaslearekin batera. Gu biok ikerketa talde baten partaide gara eta Pirinioetako alde horretako toponimia aztertzen ari gara, Koldo Mitxelenak "Toponimia, Léxico y Gramática" artikuluan zioena betetzeko nahian; hau da, leku izenen ikerketaren bitartez gure hizkuntzaren historian sakontzeko. Mitxelenak berak aitortzen zuenez arazoak izan zituen bere lana aurrera ateratzeko, nolabait toponimiarena beste batzuen esparru pribatutzat hartzen baitzen eta esparru horien muga ikusezinak gainditu zituelarik, egurra eman nahi izan ziotelako, beren ehiza-barrutiak bortizki eta era basatian defendatuz.

Honi buruz asko dakigu toponimia eta oikonimia lanetan bizitza osoa eman dugunok. Toponimia alor interesgarria eta aberatsa da, gure historia hobeki ezagutzeko beharrezkoa eta, hala ere, zer nolako inbidiak sortu diren leku izen solte ziztrin batzuen inguruan. Hau honek azter dezake eta honek ez. Honek badu ikertzaile bulda eta honek ez... Horregatik eskertu nuen bihotz-bihotzez Mikel Belaskok egin zidan gonbitea, Andorrako Gobernuak diruz lagundutako ikerketa talde batean sartzeko, hango toponimia aztertzeko. Nik, jakina, bi aldiz pentsatu gabe baietz esan nuen eta, era honetan, ia maletak egiteko denborarik gabe, hara non neure buru sakandar hau Andorra la Vellan aurkitu nuen.

Hantxe toponimiaren inguruan bildutako talde atsegin bat ezagutu ahal izan nuen, Axularren moduan lagunarte gozoan aurkitu nintzen ezezagun haiekin. Taldea ez zen batere itxia eta ehiza-barrutirik defendatzeko beharrik ez zeukan ehizara joateko asmorik ez zutelako; alderantziz, lehenengo unetik harrera ezin hobea egin ziguten andorratar haiek eta beren talde haren partaide egin gintuzten.

Konpainia on hartan, katalanez baizik mintzatzen ez ziren lagunen artean geundela, "ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa", hau da, hizketa gaia izan zen ezen toponimia baliatuz euskararen aztarnak bilatu behar zirela hango mendi, ibai eta lurren izenen artean. Ezin nuen sinetsi oraindik ere benetan Andorrako Printzerriaren Gobernuak proiektua finantzatzen zuela eta Valira ibaiaren ertzetan egon zitezkeen aztarna euskaldunak berreskuratu eta zaindu nahi zituela.

Andorran duela mende piloa galdu zuten euskara, eta gelditu zaien apurra berreskuratu eta zaindu nahi du hango gobernuak. Gurean euskara bizirik dugu oraindik ere (Sakana da haran euskaldun zahar hegoaldekoena) eta Nafar Gobernuak desagerrarazi eta hil nahi du.

Benetan lotsagarria. Andorrako eta Nafarroako Gobernuen kultura maila ezberdinen adierazle. Andorran katalana zaindu eta euskararen aztarnak berreskuratu nahi dituzte... Nafarroan, aldiz, euskarari erasotzen diote behin eta berriz eta gure altxorra errekara bota nahi dute hondatu dadin ... A zer lotsa! A zer nolako ezjakin oies hezigabeak!

Gipuzkoako punk-oi! mugimenduaren jaialdia



Larunbatean, 23:00etan
Etxarri Aranazko gaztetxean

Holidays in Bardulia izenburupean probintzian, Gipuzkoan, makina bat punk oi! jaialdi antolatu izan dituzte hango taldeek. Orain muga gurutzatu dutela, Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak biharko jaialdia Holidays in Etxarri leloarekin aurkeztu du. Goierritik The Last Strenght etorriko da. Haiekin batera, The Friday´s Crew azpeitiarrak eta Cold Rebege debagoienarrak izanen dira Etxarriko gaztetxeko eszenatokian. Guztiak ere punk-oi! doinuak aletzen.

Iruñeko Ganbera Abesbatza Lakuntzan

Larunbatean, 19:00etan Lakuntzako elizan

Gure musika izenburuko programa eskainiko du bihar Iruñeko Ganbera Abesbatzak Lakuntzako elizan. David Galvez Pintadok zuzendutako koraleko abeslari da Ana Sukia lakuntzarra. Herriko udala izan da kontzertua antolatu duena.

Biharko emanaldian garai, estilo eta egile ezberdinen lanak entzuteko aukera izanen da; eskaintza anitza eta aldakorra. Hala, Amerikan idatzitako lehen polifonia obrarekin gozatzeko aukera izanen du entzuleak (ketxua hizkuntzan, gainera). Argentinar eta hungariar sortzaileen musika erlijioso eta folklorikoa. Frantzia eta Alemaniatik ekarritako doinu klasikoagoak, baita Euskal Herrikoak ere.

Programa

Obra	**Egilea**
Hanac Pachap	**Juan Perez de Bocanegra**
Quatre motets sur des thèmes grégoriens	**Maurice Duruflé**
Ubi caritas	
Tota pulchra es	
Tu es Petrus	
Tantum ergo	
Misa criolla	**Ariel Ramirez**
Kyrie-Agnus Dei	
Sechs Lieder im Freim zu singen	**Felix Mendelssohn**
Frühlingsahnung	
Die Primel	
Frühlingsfeier	
Lerchengsang	
Morgengebet	
Herbstlied	
Karácsonyi Bólcsödal	**Lajos Bárdos**
Siete canciones vascas	**Fernando Remacha**
Ituingo arotza	
Neure maitena	
Kreatura damnatua	
Gizonak	
Leihorik leiho	
Urrundik	
Horra hor goiko	
Aran Lore	**Aita Donostia**
Natufurahi	**Keniako herrikoia**
Duerme Negrito	**Atahualpa Yupanqui/Emilio Solé**

Sakanako bi talde Bardoak lehiaketan

Aurten ez da Nafarroako Bertsolari Txapelketarik izanen eta hari lekukoa Bardoak, Nafarroako taldekako bertso ekimenak, hartuko dio. Bardoak ekimenaren bigarren edizioa izanen da aurtengoa, auzolanean oinarritutako txapelketa.

Duela bi urte bezala, Nafarroako bertso-eskoletatik abiatuta eginen da lehiaketa, bertso-eskolen sarea indartzeko. Talde-lana ardatz, bertsolari eta bertsozalen harrobia berritu eta gune berriak barneratzea da helburu.

Otsailaren 7an hasiko dira bardoak kantatzen eta lehia apirilaren 12ra arte luzatuko da. Nafarroako Bertsozale Elkartetik aurreratu digutenez, Sakanako bi talde ariko dira txapelketan: Bilixkorriko eta Bizkorratxiko. Gainera, txapelketako aurreneko egunean Arbizun saioa izanen dute bi taldek, Bizkorratxiko eta Leitzako Harrapazank. 22:00etan izanen da, Arbizuko Argibide elkartean.

Nazabal Hendaian

Gaur, 19:00etan, zabalduko ditu ateak Hendaiako Mendi Zola kultur gunean *12 cm* erakusketa kolektiboa. Hainbat eskultorek, margolarik eta argazkilarik sortutako lanek osatzen dute erakusketa. Guztiek ere 12 cm-ko tamaina dute. Itziar Nazabalek 12x12 cm-ko bi koadro eraman ditu erakusketarako. Biluzien eta pasioaren serieko lanak dira, paper gainean eginiko teknika nahasiarekin sortuak (Bularren sentsualitatea eta… Eta bularren amatasuna). Biek batera irudi bat osatzen dute, baina banaka ere jar daitezke. Tamaina txikiko artelanen erakusketaren 18. edizioa da eta otsailaren 15era arte egonen da ikusgai.

Jende ugari action paintingean

Otsailaren 16ra arte izanen da ikusgai erakusketa, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:00etatik 20:00etara.

Ostiralean mustu zuen Helena Santano Cidek Orainetik iragana eta geroa eraikitzen izenburua duen erakusketa Iortia kultur gunean. Bere obraren atzera begirakoan orain arte erakutsi ez dituen lanak daude ikusgai. Erakusketa mustutzeko margolariak DJ Jurgi Oraaren doinura koadroa margotu zuen. Santano musikaren doinura zuzenean margotzen ikusteko makina bat jende gerturatu zen.

GUAIXE
Sakanaz sarean
TOKIKOM

Egin zaitez komunitateko kide

Behin izena emanda, edozer esan al dezaket?

Ez, noski. Gogoratu arau sinple hauek:

• BAT. Guaixe.net-en parte hartzeko erregistratu beharra dago.

• BI. Irainak ez ditugu onartuko. Halakoak baleude, guaixe.net-ek kentzeko eskubidea dauka.

• HIRU. Testua euskaraz idatzi behar da. Bestela, guaixe.net-ek kendu egingo du.

Zalantzaren bat baduzu: 948 562 107 / bierrik@guaixe.net helbidera

Gasteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria:	82%	96%	78%	68%	60%	89%	50%
Min: / Max:	2 / 7	4 / 4	0 / 5	2 / 5	0 / 8	3 / 7	3 / 10

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	13.5	1	106.9
Etxarri A.	12.5	0.1	120.5
Altsasu	11.5	1.5	83
Aralar	6.7	-3.9	98.9
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
6	14	22	1

Ilbeltzeko bazkide sarituak

1.- Mª Jesus Arruabarrena Kintana (Etxarri Aranatz)

2.- Susana Sureda Romero (Etxarri Aranatz)

3.- Leire Arratibel Ganboa (Etxarri Aranatz)

4.- Irene Checa Orobengoa (Altsasu)

OTSAILEKO SARIAK:

1. EKAINBERRI KOBAZULOTARAKO 2 SARRERA, GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA
2. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA
3. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA
4. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA



>>11 galdera

Aurkene Ormazabal

Moda diseinatzailea

Testua: Erkuden Ruiz Barroso

Elkarrizketa osoa: guaixe.net-en.

1. Zergatik ikasi zenuen moda diseinua?
Ume nintzenetik gustatu izan zait marraztea. Gauzak edo produktuak diseinatuko nituela pentsatzen nuelako ingeniaritza ikasten hasi nintzen, baina ez zitzaidan gustatu. Orduan jakin nuen moda diseinatzeko ikasketa ofiziala zegoela eta Madrilera joan nintzen.

2. Ikasketak amaitu dituzu eta lagun batekin batera Bly design and fashion sortu duzue.
Bly izena egun euritsu batetik dator. Biak elkartu eta izena pentsatzen hasi ginen eta blai bururatu zitzaigun. Izen internazionalago bat bilatu nahi genuen, eta bururatu zitzaigun blai y grekoarekin amaitzea.

3. Nolako arropak aurkitu daitezke Bly-en?
Zerbait abstraktua da. Gure intentzioa zirak egitea da. Hori izango da gure produktu nagusia. Blai ideia horretatik dator. Baina ez dira kirol zirak edo kaletik aurkitzen ditugunak. Moda ukitu bat izango dute. Zirekin jartzeko barruko arropa ere diseinatuko dugu, soinekoak, elastikoak… baina betiere estilo minimalistan. Garrantzia ematen diogu estanpatu digitalari, argazki bat hartu eta ehunean jartzeari. Beste itxura bat hartzen du.

4. Nolakoa da arropa minimalista?
Funtzionaltasuna bilatzen duen arropa da. Ehun teknologikoei garrantzia ematen zaio eta koloreak, normalean, neutroak dira. Forma arraroenetik sinpleenera joatea. Alexander Wang, Celine, Jill Sander eta David Delfin diseinatzaileek, besteak beste, estilo minimalista dute.

5. Zein da zure inspirazioa?
Normalean artean inspiratzen naiz. Arkitekturan, artistetan, koadro batean… Iaz Chillidarengan oinarritutako bilduma bat egin nuen.

6.Laster Art&Fashion lehiaketan parte hartuko duzue.
Nazioarteko lehiaketa hau bi urtetik behin ospatzen da, Bilbon. Europako diseinatzaile askok parte hartzen dute. Otsailean look bat eta dossierra aurkeztu behar dugu. Zira gona batekin aurkeztuko dugu. Lehiaketa ekainean ospatuko da, eta 3 look aurkeztu behar dira. New Yorkeko High Line park-ean inspiratutako bilduma bat aurkeztuko dugu.

7. Arropa horiek erosteko aukera izango da?
Batzuk bai. Ibiltokirako egiten diren produktuak normalean ez dira saltzen, espektakulua sortzeko egiten dira, ikuslea erakartzeko. Gero askoz ere arropa normalagoak egiten dira saltzeko.

8. Ez da lehenengo aldia moda lehiaketa batean parte hartzen duzula.
Gure munduan lehiaketetan parte hartzea oso garrantzitsua da, ezagutzera emateko modu bat, eta hasieratik hasi nintzen lehiaketetan parte hartzen. Karrerako lehen mailan Novias del Surren parte hartu nuen. Emaztegai jantzi bat egin nuen, hiru piezako jantzia, eta finalera iritsi nintzen. Sevillara joan nintzen, ibiltokira atera nintzen eta oso esperientzia polita izan zen. Gero Kopenhagera joan nintzen beka batekin. Bertan larruaren testura ezberdinak ikertzeko aukera izan genuen. Hurrengo urtean Milanen, film batean oinarrituta kapa bat egin nuen azeri eta untxi larruarekin. Finalera iritsi nintzen.

9. Chillidarengan oinarritutako bilduma ibiltokian erakutsi zenuen?
Bai. 25 ikasletik 10ek lortu genuen gure bilduma aurrera eramatea. Cibelesen barruan Entramados deitutako jaialdi bat antolatu zuten eta hor nire diseinuak desfilatu zituzten. Oso hunkigarria izan zen. Zure arropak edo diseinuak ibiltokian daudela ikustea zoragarria da.

10. Nola sortzen da moda bilduma bat?
Lehenengo gauza inspirazio da. Argi izan behar duzu zer lortu nahi duzun. Bilduma landu behar da eta, honek, jarraipen bat izan behar du. Denak koherentzia bat izan behar du, koloreek jarraipena izan behar dute. Istorio bat kontatzea bezala da.

11. Blyen prozesu osoa egingo duzue?
Normalean guk egiten dugu prozesu osoa. Guk diseinua eta patroigintza egingo dugu. Patroigintza oso garrantzitsua da, arropa gorputzera egokitu behar delako. Oso jende gutxi dago patroigintza ongi egiten duena.